

ISILIK =

PEDAGOGI ALDIZKARIA

6. alea 1986. UZTAILA

300 pzta.

HEZKUNTZ SISTIMAREN ERREFORMA

euskara eta futbola.

HEZKUNTZA, BRASILEN

IPARRALDEKO EXPERIENTZIA:

Herri Batasuna

IPUIN ZAHARRAK AZTERTZEN

SARE PUBLIKORUNTZ

Euskadiko Ezkerraren Lege Projektua

KUBAN HEZKETA LEKURIK GORENENEAN



BILINTX **LIBURUDENDA**

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermin Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean,

Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar....., aurkituko dituzue.

ekar s.a.


Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A


Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....

5888
UR-028/8

ISILIK =



AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO
wvvt
1987 MAI. 27



Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologo, pedagogo
eta beste

Azala:
Irakasle Elkartea

Diseinugile:
Irakasle Elkartea

Inprimaketa:
Graf. Lizarra

Konposaketa:
LENTE

Dep. Leg.:
S.S. 509/82

GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEAREN
ardurapean.

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketa, 12-8a F
Donostia 20010
Tfnoa: 455100-22

IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
EUSKAL ESKOLAREN INGURUAN... SARE PUBLIKORUNTZ.	4
HEZKUNTZ SISTIMAREN ERREFORMA.....	17
HEZKUNTZA BRASILEN.....	24
BAKEROAK (Experientzia).....	29
IPARRALDEKO EXPERIENTZIA (Euskara eta Futbola)	35
IPUIN ZAHARRAK AZTERTZEN.....	37
KUBAN HEZKETA LEKURIK GORENEAN.....	43
MEMO-ri GUTUNA.....	47

SARRERA

ISILIK Aldizkariaren 6. alea daukazu esku artean, amaitu berria den ikastaro honetako oporraldietarako kaleratu nahi izan duguna, hain zuzen ere.

Nola pasatzen den denbora! Hainbat gauza gertatu baldin bada ere, ba dirudi irakasleak astintzen zituen aire fresko hura epeldu eta baretu egin de la. Gure egoera honek autokritika serio bat merezi duela uste dugu.

Ez dakit nor esan zuen (Giner de los Rios-ek, uste dut) garrantziz koena irakaslea dela; "Emaidazue irakaslea eta gainerako guztia berez etorriko da".

Eta ISILIK egiten dugunon esperientziak horixe baieztatu digu; Kali tatezko irakaslerik gabe ez dagoela kalitatezko eskolarik, alegia.

Gainera irakaslegoaren artean irakasleak eta irakasleak daude. Badi ra batzu OHO guztiko edota, Irakaskuntza Ertainez zerbait dakitenak. Badi ra beste batzu aldiz, eguneroko lanetan dituzten hutsunez eta formazio murriztasunaz gutxi dakitela ohartu eta ohartzen direnak. Azken hauek, galdera desegokiak, forma berrien bila, eta ikasle deritzogun pertsona ezezagun horren aurrean elkar topatzera ahalegintzen direnak, izaten dira hain zuzen.

Alferrikakoak izango dira Gobernuen hezkuntz sistimaren erreforma guztiak, ez badira gai irakaslegoa (hauen zati bat bederen) hunkitzeko, eta gogoz eta ilusioz beterik lanean ezartzeko.

Badakigu irakaslegoaren konplexutasun soziologiko eta lan egoera izu garriak berarekin daraman zailtasun ikaragarria.

Baina hezkuntz administrazio demokratikoen, hots, eguneroko bizitzaren transformazioarekiko konpromezua eta herrigintzan lanean diharduten sektore desberdinen laguntza jasotzen duten Gobernuak besterik ez dute izango lurra eta zeruak batera ukitzeko baldintza objektiboak eta subjektiboak, EHAA eta bizitzaren artean zubi bat luzatzeko, desio eta errealitatearen arteko izango den zubi bat.

Irakaslegoaz arduratu den administrazioa betidanik kontrolaz, konpultsioaz eta intendentziaz soilki arduratu izan da. Duela gutxi arteko salbuespenaz, noski. Deus ez da aldatu nahi izan edota, ierarkiaren goi-muturretik egin nahi izan da.

Baina LODEz bataiatutako erditzearen oinazeak pasa ondoren, tenorea da, irakasleei dagokien protagonismoa emateko eta berauek horretaz jabetzeko. Argiago azalduko dugu. Ikasleengana nola iritxiko den jakinduriaz arduratuko den konpromezu autoexigenteaz arduratuko dena, hots, jakinduria eztabaidatzea; irakasleak ahozko informazioa ematen duenean aurrean begira dagoen pertsona horretaz zer dakien galdetzea; profesional bezala lanean diharduen etorkizuneko eta tradiziozko kulturaren eragingarriak, sinboloak eta zeinuak zein lekutan aurkitzen diren. Orduan, esperientzia eta espazioa taiutu besterik ez zaio geratuko irakasleari; ikastea esperientzia erakargarria izan daitekeela, irakasleak bere kabuz aurkitzera bultzatuko duen jakindurirako lan-tresnak eskainiz.



EUSKAL ESKOLA

PUBLIKOAREN INGURUAN

IRAKASLE ELKARTE honen ekintzetariko bat urtean zehar hitzaldiak antolatzea da, eta hala egin ere.

Duela zenbait hilabete eta, ESKOLA PUBLIKOAREN arazoa gori-gorian zegoenean eta irakasle batzuren eskaeraz, gai honi buruzko hitzaldiak edota, mahai-inguruak antola genitzala eskatu ziguten.

Berehala alderdi politikoeekin harremanetan sartu ginen egitarau oso bat prestatuz. Honela antolatu genuen: Asteaz bizpahiru hitzaldi bailara ezberdinetan zehar, mahai-inguru batekin bukatu asmoz. Honokook deitu genituen: PNV, PSOE, EE, HB eta ELA, STEE-EILAS Sindikatu mailan.

Euskadiko Ezkerrak eta Herri Batasunak baiezkoa berehala eman ziguten, eta besteengandik aldiz, ezezkoa edota erantzunik eza, jaso genuen.

Ondoan doazkizuen artikulua horiek, hitzaldi horietan bildurikoak dira.

Alderdi bakoitzaren jarrera desberdinak argi eta garbi aditzera ematen zaizkigularik.

Guztion argitasunerako izango diren asmoz.

SARE

PUBLIKORUNTZ

Euskadiko Ezkerraren Lege Projektua

Denok dakizuen bezala, gure LEGE PROJEKTUA Parlamentuan aurkeztu zenetik, hamabost hilabete luze igaro dira jada. Beraz, atzerapen handi samarra jasaten ari da EAJren aldetik, batipat. Guk honen aurrean bi irtenbide genituen:

a. Bere eskemetan itxi eta han gertatu zena bost inporta zitzaiela (Parlamentuko botazioz dihardut) pentsatu, hots, errore tekniko hutsa izan zela eta orduan ez zitzaiela kasorik egin behar eta beraz, Parlamentuan oztupoak jarri behar zitzaizkiola lege proposamen honen tratamenduari.

b. Eta bigarrena, aldiz, izango litzateke: Ez da oztupo edota ez da erru tekniko bat izan, Eusko Alderdi Jeltzale bezala eta Euskal Gobernu bezala geure programetan idatzita daukagu Ikastolek eta sare publikoekin, Eskola publikoaren izenean ez dauka zentzurik bi sare publiko edukitzeak, eta hori Euskal Gobernuaren programetan idatzita dago.

Beraz, Parlamentuan planteiatu dena ez da zilegi, blokeatzea eta oztupoak ifintzea, alegia. Baina lehen, zorionez Juan Urrutia zegoen kontseilari, Hezkuntzako Kontseilari bezala, eta honek erabaki zuen bidea ez zela oztupoak ifintzea, negoziatzea eta akordioak bilatzea baizik. Eta horretan aritu ginen Juan Urrutia Kontseilari izan zen edo iraun zuen bitartean negoziatzen, hau da, 84-eko Urritik Abendu bitartean. Eta gu akordio batzutura iritxi ginen garai hartan Juan Urrutiarekin. Eta orduan behintzat, Gobernuaren bedeinkazioa zuen akordio hark. Lortu zen akordio hura eta gaur egun Parlamentuan dagoena berdina da.



ZER ESATEN DU AKORDIO HONEK?


Erregulatu egiten ditu alde batetik, errekonozitu edo aitortu lkastolei, *publikotasunerako eskubidea* dutela eta, beraz, *administralgoak duela erantzukizun hori*, ateak ireki behar dituela, hau da, konbokatoria bat edo dei bat egin behar diela lkastolei, publiko izan nahi duten lkastola horiei, beren eskaera aurkez dezaten.

Bigarrenkoa, esaten da, publikotasunerako bide hori *ahalik eta homogeneoena* izan dadin, ahalik eta berdintasun handienekoa izan dadin, eta lkastolen duintasuna garantizatu ahal izateko, sortuko dela publiko izan nahi duten lkastola horien artean eta administralgoarekin batera lkastola Publikoen Kontseilua (Consejo de Integración de lcastolas). *Zertarako?* Ba, planteiatzen dugu, lege honetan eta akordio hauetan beharrezkoa dela administralgoak lkastolekin publikotasunerako prozesu horretan izan behar dituen harreman guztiak ez daitezen izan partikularrak, administralgoak lkastola bakoitzarekin, baizik eta administralgoak hitzegin beharko duela publiko izan nahi duten lkastola horiek kolektibo bezala entendituta, hau da, azken finean tratatzen dena, helburua da, lkastolen publikotasunean tratatu behar dira Seguritate Sozialeko zorrak, tratatu behar dira Entitate Finantzierarekin dauden zorrak, tratatu behar dira Patrimonioaren traspasoak, tratatu behar dira beste asunto batzu, baina batez ere hori, hau da, Zentroari eta Zentroaren jabegoari dagokion zenbait aspektu eta administralgoak harremanak baldin baditu lkastola bakoitzarekin eta banan-bana, administralgoak joka dezake oso erraz lkastola bati A eskainiaz eta beste bati Z eskainiaz eta, beraz, tratamendu diskriminatoriorik ez dadin gerta lkastola batetik bestera, administralgoaren tratamendu diferentea, orduan sortzen da «Consejo de Integración de las lcastolas» delako hori eta administralgoaren ordezkariak eta publiko izan nahi duten lkastolen ordezkariak osatzen dute.

Hirugarrenko aspektua, *patrimonioarena edo lkastoletako ondasun eta ondarearena* da. Egiten den edo jasotzen den tratamendua EIKEn tratamenduari edo ondasunari zegokion tratamendu berdin-berdina da, EIKEn zer tratatzen zen? EIKEn esaten zen: lkastola batek eduki ditzake bere inmuebleak edo bere ondasunak propietatean, zorrik gabe eta, orduan, lkastola horri eskainiko zaio bi aukera: edo erabilpena utzi Gobernuaren alde eta 40 edo 50 edo 60 urteko izenean edo propietatea pasatu, jabegoa Jaurlaritzari pasatu. Zorrek egon daitezkeen beste lkastola batzu, beren propietateak zorretan ditzutenak, hauei ere eskainiko zaizkie bi oportunitateak; segun, edo ikusi beharko litzateke —legeak hori ezin du tratatu— Gobernuaren kontuak dira—zorrak, berak daukan patrimonio edo ondarea baino bat gehiago edo erdia baino gehiago baldin bada, administralgoa egiten bada dauzkan zorren kargu, ez du zentzurik lkastolaren titularrari eskubideak uztea patrimonioarekin jarraitzeko edo propietate horrekin jarraitzeko. Beraz, segun zer zor asumitu beharko litzatekeen edo gain hartu beharko litzatekeen administralgoak, egiten da edo erabilpenaren eskubide edo trasmisio hori eta bestela, propietatea Gobernuari eman edo erabilpenarena. Lkastola batek erabakitzen badu, nahiz eta berak zorrak eduki, Gobernuari ez ematea propietaterik, erantzuna ere Gobernuaren aldetik garbia da, hots, propietaterik ez badio pasatzen, normala da baita ere, lkastola horrek dituen propietate edo inmiebleetan dituen zorren jabe ez egitea Gobernu.

Alkilerreko situazioak, hau da, lkastolek badauzkate gelak alkilerrean, edo errentan, e.a. lkastolaren titularrak egin beharrean kontratuak administralgo titular berriak egingo ditu handik aurrera, publiko bihurtzen denetik aurrera.

Akordio honetan tratatzen dira, baitaere, *baldintza batzuk publiko izateko* eta baldintza horiek lehendabizi administralgoarekiko. Lkastola publiko bihurtuta administralgoak bere gain hartzen ditu lkastola horrekiko beste zentro publiko guztietan dauzkan erantzukizun guztiak, tratamendu berdinean, hau da, Donostiako beste edozein ikastetxe publiko izango balitz bezala, beste edozein zentro publiko, baina ez Komunitate Autonomoko administralgoak baizik eta Udaletxeetako administralgoak eta zentru publikoekiko dituzten erantzukizun guztiak hartzen dituzte lkastola horientzako, hau da, mantenua,





e.a. Badakizue OHOean administralgoek dituztela Erregimen Lokaleko Legearen arabera publikazioak, hots, kasu edo gauza horietan tratamendua ifintzen da, baldintza bezala publikotasunerako bideak ezin daitezkeela inolaz ere eredu linguistikoaren kosta egin, hau da, Ikastolabat publiko egiteagatik *ereduak ezin dira galdu*, hau da, euskarak —beste hitz batekin esanda— ez du galdu behar ezertarako, baizik eta publikotasunean administralgoak hartzen du errespontsabilitate bezala, erdaraz esaten da testuan «el mantenimiento y el desarrollo de los modelos lingüísticos existentes» Nere ustez, eta bizi garen errealitatean eta beste zentzutuan zer egiten den kontutan edukita, tontakeria bat da baina, jaso beharra zegoen eta, dirudienez, suspikazi eta erreze-loak zeuden publiko bihurtuz gero euskara galdu egiten zuela, e.a., baina hori jasotzen da. Enteratu gaitezen publiko eginda ere D ereduan jarrai dezakeela Ikastola horrek.

Baita ere, jasotzen dira, Ikastolarekiko beste errespontsabilitate edo erantzukizun batzuk ere. Ikastola publiko horren *barne funtzionamendua* beste edozein ikastetxe *publikoren funtzionamendua* izan behar du, hau da, Ikastola batek publiko bihurtuta diru publikoaz ornituta, e.a., e.a., ezin duena da bere barne funtzionamenduarekin jarraitu, baizik eta egokitu behar ditu bere gestio organoak eta funtzionamenduko organoak zentro publikoetan dauden erakunde, organo eta gestioen erregletara eta gaur egun LODEk adierazten dituen erregletara.

Irakaslegoarena eta, batez ere, zuei interesatzen zaizuen. Hemen ematen den tratamendua da, Ikastola publiko bihurtzen denean, Ikastola horretako irakaslegoari irakaslego dozein edo titulatuari ematen zaio *5urtetako estabilitatea zentroan* eta 5 urte horietan geratzen da interino bezala izendatuta. 5 urte horietan lan estabilitatea zentro horretan, ez beste edozein lekutan, baizik eta zentro horretan garantizatu ahal izateko, plaza horiek ez dira konkurtsora ateratzen, hau da, beste funtzionariarentzat plaza horiek ez dira esistitzen 5 urte horietan. 5 urte horietan, beraz, plaza horiek ez dira ateratzen. Eta 5 urte horietan gertatuko balitz ezbeharren bat, edozein irakasle-andereñorengan, edo batek lekuz aldatu nahi du edo Mexikora joan nahi du edota igoerak baldin badaude plantilan, exzedenteak edo gutxitzeak kubrituko dira Hezkuntza Departamenduak duen araudi arruntarekin, ez da izango Ikastolako «Comisión Paritaria de Control» edo de «contratos» egiteko, baizik eta egin nahi dena «Sistema de Contrato Normal» da, gestio publikoetan egiten den bezala baina hori bakar-bakarrik 5 urte horietan baldin eta hutsuneak gertatzen badira, hutsunea sortzen ez duenari ez zaio pasatzen ezertxo ere eta plaza horiek ateratzen dira edozein kasutan izan, edo 5 urte pasa ondoren, edo 5 urte horietan sortutako hutsunetan, 5 urte horietan plaza horiek beti ateratzen dira euskaraz, hau da, gaur egun Eskola Publikoetan badakizue ateratzen direla plaza batzu euskarara eta beste batzu erdarara, orduan



euskarara doazenek baldintza edo rekisito batzu behar dituzte eta publikotasunera doazen ikastola hauetako plaza guztiak betetzen dira pertsonal euskaldunarekin. 5 urte horietan administralgoa eta irakaslegoa konprometitzen da, bakoitza bere arloetan, *proba espezifiko batzutan edo berezi batzutan parte hartzea, funtzionaritza lortzeko*. Konbokatoria espezifiko bat edo proba espezifiko bat egingo da funtzionari egoera izatea lortzeko.

Hemen gustatuko litzaidake beste asunto bat garbi uztea, proba berezi hauetan edo konbokatoria berezi hauetan bakar-bakarrik parte har dezakete publiko bihurtzen diren ikastoletako pertsonalak, hau da, ni baldin banaiz publiko bihurtu den ikastola batetako pertsona eta nirekin batera beste 30 baldin badaude, bakar-bakarrik proba berezi horretan parte har dezakegu, funtzionaritza lortzeko, 30 horiek, zeren eta erreserbatua bait dago publiko bihurtu den ikastoletako irakaslegoarentzat turno hori. Beste edozeinek ezin dezake parte hartu. Zergatik? Ez direlako plazak konkurtsora ateratzen, plaza horiek ez dira esistitzen beste funtzionariarentzat, beste maisu-andereñoentzat eta, beraz, nik ez dut konkurtsatzen plaza batetara, konkurtsatzen dut funtzionari izan edo ez izatera. Beste ejemplu batekin esplikatuko dut: Gaur egunean Eskola Publikoetan plazak ateratzen direnean, adibidez, iaz atera ziren 1.431 plaza Hezkuntza Departamenduan, gero gehitu ziren eta pasa ziren 1.548ra, hauetatik 120 atera ziren turno librera. Turno libreak zer esan nahi du? Edozeinek parte har dezakela, paroan dauden, magisterion dauden edozeinek; eta 1.438 erreserbara. Zeinentzat zegoen erreserbatuta? Interinoentzat. Zer esan nahi zuen? Turno horretan interino zirenek bakarrik parte har zezaketela, baina zer gertatzen zen? Eta orain noa bigarrenengo aspektu honetara, 1.768 interino dauzkagula. Beraz, interino horiek ez dute konkurtsatzen funtzionaritzara, plazara baizik, eta tribunalak ezin ditzake aprobatu publiko atera diren plazak baino gehiago. Beraz edozein kasutan, nahiz eta proba gaietan 1.600ek aprobatu, tribunalak ezin ditu aprobatu 1.438 baino gehiago eta kasu honetan, plazatara konkurtsatzen ez denez, 5 urte horietan plazak konkurtsora ateratzen ez direlako, nik funtzionaritzara konkurtsatzen dut eta ez dago plazen limitaziorik, nik gaiak superatzen baditut, lortu dut. Eta orduan zer esaten du? Funtzionaritza lortu ondoren, akordioak dio; proba berezi horiek pasa ondoren, ni gelditzen naiz nire ikastolan propietario definitibo bezala eta ez naiz gelditzen «en expectativa de destino». Zeren badakizue gaur egunean, nik Eskola Publikoan pasatzen dut proba, ateratzen dut plaza, baina urtetan gutxienez «propietario provisional»a naiz eta definitiba eman arte mugitzen naute eta definitiba lortzen dut «concurso de traslados»en parte hartzen dudanean. Kasu honetan, funtzionaritzara pasatzen da eta akordioa gero lortzen du, propietario kondizioa, propietario fijo bezala dagoen zentzuan. Aldatu nahi baldin badu parte hartu beharko du, beste edozeinek bezala, traslado konkurtso batetan. Hori «persona docente» titulatuarentzat.





Zer gertatzen da *ez dozentearantzat*? Idazkariak, Ikastola batetan egon daitekeen gerentea, sukaldariak, garbitasuneko emakumeak edo kontserjeak. Horiek, lehen esan dut Udalak dituela obligazio batzu, beste zentro publikoetan dituen berdinak, ba kasu honetan ere bai, hau da, *Udal* batek legez baldin badauka obligazioa eskoletako kontserjea bere *plantilara* pasatzeko, kontserje hau ere hartu egin beharko luke eta sukaldaria Udal bati tokatzen zaion pertsonal guztia Udalak hartu beharko luke eta Udalak hartu ezin ditzakeenak Euskal Gobernuak hartuko ditu, hau da, Euskal Gobernuak egingo die kontrata laboralaren jarraipena.

Eta, zein gelditzen da? *Titulugabeak*. Eta hau da asunto bat, bada, zaila. Denok dakigu gaur egunean hezkuntza sistemaren barruan homologazioa birlatzeko pertsona helduentzat zaila dela asuntoa. Baina guk nahi ez duguna da behintzat, lege hau alde horretatik kritikatu; esan dugu, hori Euskal Gobernuaren problema bat da; baina gure problema ere bada, baina Euskal Gobernuarena da batez ere, eta ez dadila izan lege honen problema. Orduan, gogoratuko zaretenez, EIKEan ez zen aipatzen ezertarako arazo hau, ez zen tratatu ere egiten, eta guk lortu duguna da akordio honetan —aurrera ateratzen bada behintzat— pertsonal dozente ez titulatuak bere kontratuarekin jarraitzea Gobernuak egindako kontratuen bidez, Gobernuak hau planteiatu egin beharko du gero ea zer egiten duen Ikastolako titulu gabeko pertsonalarekin erabakitzeke. Zeren eta azkeneko 5 urtetik honuntza egon bait dira akzesoko proba batzu magisterio berezi bat egiteko, e.a., baina oraindik ere badaude titulugabeak eta, orduan, epe hori luzatu egin beharko da, edo ez dakit zer egin beharko den, *Gobernuaren eskuetan geldituko litzateke pertsona horien egoera akademikoa nola erregulatu*. Hau da planteiatzen dena irakaslegoari dagokionean.

Eta orain epeetara joanda. Epeetan seinalatzen den lege hau orain onartuko balitz datorren urtarrilean Gobernuak egingo luke deia Ikastola publikoa egiteko. Eta Ikastolek 6 hilabete daukate, Urtarriletik hasita, heuren erabaki dezaten ea eskaera aurkeztzen duten ala ez, hau da, bide honetatik joaten diren ala ez. Hori gertatu ondoren, 6 hilabete pasatu ondoren, osatuko litzateke hasieran aipatu dudana «Consejo de Integración de Ikastolas», hau da, Ikastolek aukera dezaten heuren ordezkariak administralgoarekin negoziatzen eta epe hori pasatu ondoren, hau da, Ekaina, eta gero kontsejua osatu, 86-87 kurtsoan hasiko lirateke Ikastola batzu publiko izaten, eta 87-88an baldin badaude, segituko lukete besteek publiko izaten hau da, zergatik ifintzen dira 2 epe? Gerta daitekeelako Ikastola batzu berandu erabakitzea eta orduan ezin sartu izatea urte hartako presupostuetan, azkenean problema presupostario hutsa da, Gobernuak aurretik jakin behar du zenbateko partida presupostariak sartu behar dituen eta hori jakiten da, gutxi gora behera, zenbat Ikastola pasatzen zaizkizun saré publikora ikusiz eta, beraz, zure eskola bihurtzen dira.





Azken berriak. Zertan dagoen asuntoa.

Aurreko astean, lehen esan dut 15 hilabete daramatzagula asunto honekin eta gehiena mogitu da azkeneko Irailean zeren eta ordurarte, esan dizuet, gehiena landu zena Juan Urrutiarekin izan zela, Gobernu aldaketa ere gertatu zen eta Juan Churrukarekin egin da eta ez da egin. Egin dena hor dago egin da eta hala ere denbora asko pasatu da, baina egin dena Parlamentu mailan Irailean izan da eta Irailean egin ditugu gutxienez 8 bilera ponentzikoak eta Parlamentuko batzordetik sortutako ponentzi batetan (eta nik kontatu dizkizuedan akordioak ponentzi horretan lortutako akordioak dira) eta testua dago. Gertatzen dena da aurreko astean, komunikabideetan eta ikusiko zenu ten dagoen istilua, Ponentzia eta Batzordea gelditu ginen konbokatuko zirela aurreko asteartean eta orduan EAJko den Alberto Ansola jaunak erabaki zuen suspenditu egiten direla bai Ponentzia eta baita Komisia ere. Hase-reak denen partetik izan ziren, zeren eta nazkatuta bait gaude hainbeste denbora honetaz hitzegiten, jadanik amaituta behar genuelako aspaldian. Arrazoia zera da; EAJak hau apoiatu egiten du eta orain arte lortu diren akordioetan hala adierazi du eta botoa eman behar baldin bada botoa emango du, orain arte, behintzat hala esan du baina ez zaio gustatzen. EAJren apostua beste bat izan zen, EIKE izan zen, eta nahiz eta Juan Urrutiak beste bide batetik enfokatzen zuen, Gobernuaren ekintza behintzat, nik uste dut, Urrutiak garbi zeukala EIKEk ez zuela bakarrik Tribunalean zegoelako, baizik eta, EIKEk ez zuela Euskal Herriko hezkuntza publikoa konpontzen eta Ikastolei tratamendu egokia behintzat ez ziela ematen. Eta nik uste dut, hor aldaketa bat egon zela eta inportantea Gobernuaren aldetik garai hartan eta gaur egunean hau aurrera ateratzeko egoera batetan gaude, EAJak apoiatu, ez apoiatu, baina EAJak presentatzen du? Zer eskatzen du? Akordio honi bai baina lege honetan azaldu behar du bide hau hartzen ez duten Ikastolek kontzertatu bezala jarraituko dute eta publikoen tratamendu ekonomikoa emango zaie. Eta guk esan genuen ezetz. Zergatik ezetz? Lege honetan, nik uste dut, tratatu zela publikotasuna eta ez dela tratatzen zentru kontzertatuen errejimen ekonomikoa. Izango balitz lege bat zentru kontzertatuen errejimen ekonomikoa tratatzen duena ni prest egongo nintzateke esateko zentru kontzertatuen errejimen ekonomikoa nolakoa den eta zertan den eta zertan ez duen izan behar, baina ni ez nago prest, EE ez dago prest EAJak dauzkan problemengatik Ikastolen sektore batekiko hemen kolatzea, hemen sartzea guri gola.

Honek tratatzen du Ikastolen integrazioa sare publikoan eta, beraz, hori erregulatu behar du. Noraino nago ni prest lege honetan zerbait gehiago esateko honetaz aparte? Ba, nago esateko, bide hau hartu nahi ez dutenek beste aukera bat ere badaukatela, kontzertatu izatea. Hori neronek uka dezaket? Ez ukatu eta ez baimenik eman, zeren eta, hori edozein zentru pribaturen eskubidea bait da eta zentruaren eskubidea da esatea; ni pribatu-pribatu izango naiz, edota, pribatu-kontzertatu izango naiz, beraz, hori jasotzea jasoko da.



Eta errejimen ekonomikoari zer?

Errejimen ekonomikoari buruz aldiz, zera diot; kontzertatu bezala jarraitu nahi dutenek izango dutela kontzertatuei dagokien errejimen ekonomikoa. Kontzertatuek garantizatzen dutela hainbesteko dirutza? Ba, neronek hori ere onartu egingo dut. Kontzertatuak eskaintzen diela Ikastolei hainbesteko dirutza ekonomikoa, gehiago edo gutxiago? Nik, hori ere, onartu eta errespeta-tu egingo dut. Baina nik ezin dudana da publikotasunerako biderik hartzen ez duten Ikastolei publiko izango balira bezalako tratamendua eman, tratamendu ekonomikoa eman, zeren konbentzitura bait nago tratamendu ekonomikoa pu-blikoen berdina ematen badie ez zaidala Ikastola bat ere pasako publikotasu-nera, uste dut garbi dagoela ezta? Eta orduan, hortxe dago kokka.

Momentu honetan uste dut, aurreko asteko bileraren atzeratzearen arra-zoia hor dagoela, Gobernuako partidua asunto honetan zatituta dagoela eta ez dakiela zertan apostu egin eta geure eritzia da, behintzat, nahiz eta ikusi eta jakin zeintzu diren jokaera horiek, hemen kontatu dudana baino gehiagora ez gaudela prest eta nik badakit izango ditugula presioak eta nik badakit Ikasto-lek Euskal Herrian badaukatela prestijio sozial inportante bat eta nik badakit Ikastolaren inguruan sentsibilitate eta sentimendu handia dagoela eta nik ba-dakit Ikastolez eta Ikastoletan egiten dela mito asko, baina nik uste dut egin behar duguna gauzak bere lekuan uztea dela, eta esan serioski, hau ez da euskal eskola publikoaren debatea, Euskal Eskola Publikoa denok egin behar dugu, Ikastolek eta beste eskola publikoek eta hemen tratatzen dena da Ikastolaren publikotasuna erregulatzea, duintasun minimo batez; nik ez dut esan hau zerua denik, duintasun minimo bat garantizatzea baizik, hau bai de-finituko nukeela tratamendu duin bezala; akordio honekin bai aurpegia dexe-n-te altxatuta presenta gaitzekela; hobe presentatzeko aukerak eta hutsuneak eta kritikak asumitzeko prest gaude, edota, zergatik ez diren jaso beste arazo batzu, e.a., e.a. Nere ustez, irtenbide duin bat da.

Funtzionarioitza zertarako?

Administralgo publikoan, nik ez dakit onerako edo txarrerako, hori ere beste debate bat da, administralgoa funtzionarioitza oinarri bezala hartuta antolatu behar den ala kontratu laboral batekin antolatu behar den, baina gaur egunean behintzat, Estatu Espainolean administralgoa antolatuta dago funtzionarioen mailan, eta orduan funtzionarioek daukate plaza bat, kontraturik ez daukate, plaza bat propietatean, interinoek kontraturik ez daukaten bezala, izendapena daukate; orduan administralgoan zu zara plaza baten jabe eta plaza horren jabe izateak ematen dizkizu eskubide batzu eta obligazio batzu dituzu, eta orduan, hemen zergatik proba berezia? Ba, batez ere zu plaza ho-rretan «carácter fijo y definitivo» bat izan dezagun eta estabilitatea lortu eta garantiza diezazuen egiten da. Zer bide? Ba, funtzionari izatea. Funtzionari izateko bidea hori da, proba berezi horiek konbokatzea.

Momentu honetan hemengo funtzionarioirik ez dago; baina ez dago ez ira-kaskuntzan, ezta Lakuan ere. Hau da, momentu honetan Euskal Herrian funtzionarioak Parlamentuak besterik ez dauzka. Are gehiago, Eskola Publi-koetan dauzkagun funtzionarioak ez dira Estatukoak. Oso egoera konplexua da, beraz. Zeren eta «Ley de función pública» ateratzen denean eta batez ere funtzionarioak transferitzen direnean, lehendabizi esan zen 1981ean esan zen, «decreto de transferencia de funcionarios» eta, orduan, Hezkuntzako zerbitzu guztiak transferitu ziren eta zerbitzuekin batera pertsonala ere bai, «obligato-rios» eta orduan transferitu ziren eta eman zitzaien izena «funcionarios trans-feridos». Eta nola gelditzen ziren bere jatorrizko gorputzean? «En el cuerpo docente del Estado». Gelditzen ziren «como supernumerarios». Eta «supernu-merarios» bezala ematen zitzaien eskubidea «de poder volver a su cuerpo de origen con preferencia en su puesto de trabajo».

Jo ezazue, Lazkaon dagoen maisua, Lazkaon zegoen, Lazkaon dago ela lehenago Estatukoa zen, Estatuak ordaintzen zion, «Ministerio de Educación y Ciencias»ek, transferitua da; Euskal Gobernuak pagatzen dio, Euskal Go-bernuaren menpean dago eta bere antzinako gorputzarekiko dago «con ca-racter de supernumerario» eta «supernumerario» bezala dagozkie eskubide




batzu, «de poder quedarse en el puesto de trabajo donde estaba antes», baina non? «si el Estado no tiene plazas escolares en Lazkao? Orduan zer egin da? Hori erregulatu egin da eta orduan, «Ley de la función pública-k» egiten duena da, eta esaten du: funtzionari transferitu guztiak integratzen dira oso osoki Komunitate Autonomikoko eta funtzio publiko propioan. Eta integratzen direnean bere eskubideak errespetatzen dira. Integratzen da Komunitate Autonomikoetako funtzio publikoan eta bere jatorrizko gorputzarekiko mantentzen ditu jatorrizko gorputz horretan aktiboan egongo balitz bezala, hau da, ni naiz Lazkaoko eskola batetan funtzionari bat, Estatuko gorputz dozentetako funtzionari transferitua izan naiz eta Euskal Herriko funtzio publiko propioan integratzen naiz, baina ni Estatuko gorputzeko funtzionari izan naitenez, Valenciako edo Murciako edota, Madrilego maisu funtzionari batek dituen eskubide berbera dut; konkurtsatzeko eta trasladatzeko. Hau da, nik nahi baldin badut, nahiz eta orain Euskal Herriko funtzionari publiko izan, baina lehenago Estatukoa izan naitenez, eskubidea dut Madrilen sortzen diren bakanteetan ere konkurtsatzeko.

Orain ikastolaren kasua.

Zu pasatzen zara funtzionaritzara, baina nongora? Ba, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak bere funtzio publikoa ez baldin badu sortzen, sartzen zara funtzionaritzara dagoen gorputzean, konkurtsatuko duzu dagoen gorputz dozentera, Estatuko gorputz dozentera, nahiz eta esan «que eres transferida y que vas a tener que integrar en la función pública de la Comunidad Autónoma». Orduan, gaur egunean zernolako oztopoak daude Euskal Herriko funtzio publikoa egiteko? Bat behar eta ere ez. Catalunyak egin du, Valenciak egin du, Castilla-Leonek egin du eta Murciak ere egin du. Komunitate Autonomo horiek bere funtzio publikoa egin dute eta funtzio publikoaren legea publikatu ondoren, orain hasiko dira heuren gorputzak sortzen. Catalunyan gorputz horretan bertan sortu dituzte gorputz desberdinak, gero falta zaie Catalunyan gorputz eta eskala propioak egitea.

Bost (5) urte horietan zuri ematen zaizu eskubidea, hemen sortzean bada funtzio publiko propioa, guk ez dugu esaten konkurtsatzen denik Estatuko gorputzetara, konkurtsatzen dagoen funtzio publikora eta dei hori egiten denean dagoen gorputz bakarra Estatukoa baldin bada Estatukoan sartzen zara eta Komunitate Autonomokoa baldin badago, berriz, honera, gorputz dozente propio horretara.





Antzintasuna

Momentu honetan hau akordioan jaso gabe dago eta nik garbi esango dizuet zergatik; neronek ere ez nuen sartu eta arrazoia zen ez nuela ikusten arrazoi legalik sartzeko. Hau da, ez da gertatu inon, gaur egunean dagoen lege markoan baina, honek ez du zer ikusirik Madrid etsai den ala ez, edo Gasteizekoak onak diren ala txarrak diren, baizik eta administralgo publikoaren funtzionamenduarekin dauka zerikusi bakarra.

Pertsona bat entresa pribatu batetan aritu bada lanean eta entresa pribatu hori uzten du entresa publiko batetara joateko edo entresa pribatu hori transformatzen da publikoan, inoiz ere ez zaizkio pertsona bati aitortu edo errekonozitu entresa pribatuan lanean aritutako urteak, ez ekonomi ikuspegitik eta ezta aintzintasun ikuspegitik ere.

Guk ez sartzearen arrazoina horixe izan zen. Gogoratu bai gogoratu ginen asunto hori ere hor dagoela eta badakit sindikalki begiratuta kritika guztiak merezi dituela, ez bakarrik sindikalki eta laboralki, pertsonalki ere bai.

Baina zein posibilitate legal dago sartzeko? Administralgo publikoak hiru kriterioren arabera funtzionatzen baitu: publizitatea, berdintasuna eta transparentzia. Eta orduan, tratamendu berdina eskatzea exijitu horri. Guk, ez genuelako posibilitaterik ikusten utzi genuen sartu gabe. Baina izatekotan ere Lege honek eta honela bakarrik kontenpla dezake eskubide hau. Aintzintasuna jasoko balitz, askoz kredibilitate handiagoa luke gainera lege honek irakaslegoarekiko. Guk ahaleginak egingo ditugu hau ere lortzeko.



OHARRA: Hizlariaren sintaxia eta hizkera errespetatzen ahalegindu gara.

Euskadiko Ezkerra



SARE PUBLIKORUNTZ

Herri Batasuna

EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOAREN INGURUAN

Lehendabizi egingo dudan planteiamendua izango da, HBren ikuspuntu politiko batetik nola ikusten dugun Euskal Eskola Publikoaren eraketa edo osaketa. Gero, egoera honetan zer proposamen egiten dugun eta zer posibilitate dauden proposamen horiek aurrera ateratzeko. Eta, baita ere, ondoren, egun hauetan bai prentsaren bidez, bai komunikabideen bidez aditzen ari garen zenbait eritzi, proposamen eta abarri buruzko kritika bat egin.

Hasteko, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ hitzegiten denean eta Euskal Herrian hitzegiten denean, kontutan izan behar dugu eraiki nahi dugun Euskal Eskola Publiko horrek nazio batetan txertatua egon behar duela, nazio bantentzat egina, *eskola nazionala*, orain arte ezagutu ditugun eskola nazional espainiarretatik bereiziaz, Euskal Eskola Nazionala. Euskal Eskola Publiko Nazional hau lehen epe batetan Hegoaldeko lau probintzietara eratu egon beharko lukeela iruditzen zaigu hasera batetan, horrek emango liokeelarik osotasunaren lehen zati bat eta, beste alde batetik, E.E.P.E. horrek euskalduna izan beharko lukeela. Horrezaz gain, *bakarra*, nazio batek ezin dituela 2 eskola publiko eduki kontsideratzen dugu. *Gestio demokratikoa* eta, noski, berarekin dakarren *dohaintasuna*.

Puntu hauetaz, badirudi, BAI indar politikoak eta baita ikastoletan eragina dugun sektoreak nahiko ados gaudela eta gehiago sakontzea, beharbada, errepikatzea izango litzateke. Beraz, helburua hori dela esango genuke eta guretzat gaur egun *helburu hori lortu ezinezkoa* dela. E.E.P.E. hori lortzeko eskatzen du marko politikoa aldatzea eta kontsideratzen dugu egungo Espainiako «Constitución»ek eta, horren ondorio bezala, Euskadiko Autonomi Estatuak eta beste zenbait Legek: LODE batzuk galerazi eta beste batzuk ez posibilitatu besterik ez dutela egiten, E.E.P.koa izango litzateke E.E.P.E. era iristeko, baina bitartean pauso batzuk eman beharra dago, eguneroko lanak eskatzen dituen ikastolen eta beste Eskolan egoerak eskatzen duelako, pauso batzuk eman beharra dago, egungo egoera politiko horrek ematen dizkigun ahalmenak eta posibilitateak aprobetxatuz. Beti ere garbi utzirik, ematen diren pausoak edo guk proposatzen ditugun pausoek gerora, alde batetik Euskal Herriak nazio bezala behar duen botere politiko hori lortzera jo beharko dutela eta, batetik, eskolari, botere politiko hori eduki ondoren, E.E.P.E.ari emango liokela erabakia. Honekin esan nahi dut E.E.P.E. eraikitzeke lehendabizi *aginte, ahalmen, botere politiko bat beharrezkoa* dela, gaur egun daukagun Autonomi Estatuaren bidez eman zaiena baino askoz zabalagoa eta, beste alde batetik, hori ez litzatekela nahiko izango E.E.P.E. eraikitzeke, ahalmena edukitzea ez da nahikoa, *borondate politiko bat* ere behar da, ahalmen horiek gero erabiltzeko. Gaur egun ahalmen hori ez dela esistitzen argi dago edo oso murriztua dagoela, behintzat, bideratzeko edo desbideratzeko ahalmenak ematen dituelarik.

Gaur egun eman daitezkeen urratsek E.E.P.E. erantz abiatzeko, gure ustez, bi zutabe nagusitan oinarritu beharko lukete:

–*Euskalduntasuna* batetik eta

–*Publikotasuna* bestetik izango lirateke.



Bi zutabe hauek, ez bakoitza bere aldetik, guztiz elkarloturik egon beharko lukete eta gaur egun eman daitekeen edozein urratsek, alternatiba posiblek, bi zutabe hauetako bat galeraziko balu desbideratzen arituko ginatke gerora eman ahal izan daitekeen E.E.P.E.eruntzako prozedura.

Ekiparazio juridikoa eta baldintzatua ikusten dugu guk irtenbidea, Eskola transferituekin berdintasun juridiko bat baldintzatua. Betiere, suposatuko luke, transferituekin berdintasun juridiko bat (baldintzatua) eta Ikastolen pertsonalitatea, historia orain arteko mogimendua errespetaturik (gestioa, pedagogi mogimendua, e.a..)

Kontsideratzen dugu, ekiparazio juridiko baldintzatua esaten dugunean, bultzatu nahi ditugula eskola euskaldunak eta ez inoiz bilingueak. Euskara, euskal eskola honetako eta Ikastolentzat ekiparazio juridikoa eskatzen dugunean, esan nahi dugu, bai eskolak duen euskaldun kutsu hori errespetatua eta bilingueak izateko posibilidad hori nolabait mugatuaz. Proposatuko genuke eskola horientzat *autogestio zabal bat*. Orain arte, zenbait Ikastolatan eman den autogestioa ulertuz (salbuespenak egongo lirake eta ezin da jeneralizatu).

Beste alde batetik, nahi eta nahiezko baldintza da ekiparaziorako, *irakaslegoaren lanpostuak mantentzea* orain dituen eskubideak kontutan izanik.

Eta, laugarren puntu bezala, negoziatzeko baldintza bezala kargak, *Ikastolek beregain hartuak dituzten kargak, administralgoak beregain hartzea*.

Lau puntu hauek puntu bakartzat kontsideratzen ditugu. Edozein alternatibak lau puntu hauetako bat kanpora uzteak, alternatiba guztia erren edo akas dun uztea lekarke berarekin. Baina E.E.P.E.az hitzegitean eta Ikastolaren ikuspegitik hitzegiten dugunean eta orain behin ere baino gehiago gainera, askotan ahaztu egiten dugu, ekiparazio juridiko baldintzatu hori eskatzean, besterik gabe Eskola transferituak alde batera uzten ditugula, urratu behar den bidea Ikastolena bakarrik izango balitz bezala. Badakigu, eskola transferituek puntu ahul bat dutela beregain, euskalduntasun eskasarena alegia, honetan ez bait dago ez ikasle, ez irakasle, euskalduntzeko baldintza zehatzik, herri bakoitza bere aldetik dabilelarik, nahiz eta oso intentzio onarekin ibili, administrazio aldetik inolako plangintzarik agertu gabe eta, askotan, irakasle goak berak ere oztopoak jarriz, guraso kopuru haundi batek bezalaxe, zenbait eskola euskalduntze prozeduran ematen ari den aurrerapausoak oztopatuaz administralgoaren aldetik.

Ez luke zentzurik, mementu honetan, orain arte Ikastolei proposatu zaizkion alternatibez, EIKE eta honelakoez hitzegiten aritzeak, hori nahiko ahaztuta dagoela edo, gutxienez, pipiak jota uste bait dugu.

Orain, sartuko nintzateke, gure alternatibarekin lotuta dagoen zerbait aztertzeraz, hau da, zer gertatzen ari den edo nola ikusten ditugun Parlamentuan eztabaidatzen ari diren edo ari zirenaren aurrean zer jarrera hartzen dugun eta, baita ere beste zenbait erakunderen jokaera.

Alde batetik *EEren Lege proposamenaren gure kritika* egingo dut. EAJak atzera bota du, oraingo, Lege proposamen hau eta zer ikusi haundia dauka hausketa honek Federakundeak egiten ari diren «Gestión y Funcionamiento de las Ikastolas» projektuaren aurkezpenarekin.

EEren projektuari guk egiten diogun kritika, eta lehen aipatutako ikuspuntu horretatik: ekiparazio juridikoarenetik eta lau baldintza horiek beti kontutan izanik honetan datza:

a. EEParen inguruan sortutako alternatiba dugu, Eskola transferituekin ekiparatze prozesuan ondorio bezala EEak Parlamentuan aurkeztutako Lege projektua zera diogu: honelako Lege bat aurkezteak alde txar batzuk izango lituzke, batetik Ikastolak Lege horren aurrean guztiz zatituta agertzea edo, bestela esanda, *Ikastola gutxi batzuentzat* izango litzateke agian, hau da, Ikastola gutxi batzuk sartuko lirakeela. Guk, EEParen alde definitu ziren Ikastolak bakarrik sartuko ote lirakeenaren beldurra dugu, Ikastola gehiengoa geldituko litzatekeelarik, zihurren hemendik kanpo. Orduan, ez litzateke Ikastola guztientzat egindako Lege bat, batentzat bakarrik baizik. Hasera batetan aukeraketa baten baitan bazegoen ere, batetik EIKE eta EEren projektua bestetik, EIKE pikutara joaten, badirudi, EAJren ahalegin guztia konzertatu bezala




uztean datzala, Ikastolarik handienak bertan hartu.

b. Bestetik, ondasun eta zorrak administralgoak bere gain har ditzan bere barnean hartu beharko lukeela edozein alternatibak ikusten dugunez, kasu honetan ez du puntu hori kontsideratzen, Ikastolek, transferituen sarean sartzeko, «libre de cargas» egon beharko bait lukete eta *karga* horiek *ekonomikoak* izango liratekeela uste dugu. EIKEk ere hau aipatzen zuen eta honek zer esan nahi zuen galdetzera joan ginenean, karga guztiak ulertu behar zela erantzun zitzaigun, ekonomikoak, sobran leudeken irakasleak edo pertsonala, e.a. eta Lege proiektu honek ere akats hori berekin ote daraman pentsatzen dugu.

c. Nahi eta nahiezko baldintza jartzen genuen *euskalduntasuna* gure alternatiban. Eta Lege projektuan aipatzen da Ikastolei mantenduko zaiela duten eredia. Euskalduntasuna mantentzea esatean, momentuan duen eredia mantentzea baino gehiago esan nahi du, zenbait zonatan, haur erdaldun kopuru haundi bat dagoen haietan manten al daiteke 31ko haur kopurua? Honen negatik, mantentze puntu honetan, askoz ere zehatzagoa izan beharko luke Lege proiektu batek, haur kopuruaz gain beste zenbait puntu ere argi ez bait dago: 3 urteko gelek jarraituko ote luketen sare publikora pasatzean, e.a. Nolanahi ere, pentsatzen dugu, euskararen alderako neurri diskriminatorioak eman beharra dagoela negoziaketa bat ematen baldin bada ere eta horiek ondo zehaztuta eta erabakita egon behar dutela edozein alternatibatan, praktikan ez direlako betetzen.

d. Ikastetxea aukeratzeko orduan, e.a. izango al dute posibilitatea haur erdaldunek eskola euskaldun batean heitzeko aurrerantzean ala aplikatuko zaio administralgoak duen erregela, A, B, D ereduak eta euskaldunentzat D eredia, erdaldunentzat A edo posibilitatu edo behartuko da erdaldunak ere D eredian sartzea?

Zona erdaldunetan D eredia irekiko al litzateke? Haur erdaldunentzat, norbaitek eskatzen badu erdaraz ematea, nahi eta nahiez ireki behar al dute gela bat horientzako eta euskaldunentzat hori posible izango al litzateke Lege honen barnean? Edo euskarazko unitate bat irekitzeko zenbat haur beharko litzateke? Sare publikoan sartutako Ikastola horiek haur kopuru erdalduna dela bide B eredia ere ireki beharrean aurkituko al lirateke? Ikastetxe bat bere auzoan izatetik kanpo, beste arrazoi batzuk kontuan izango al lirateke, hau da, gurasoen aukera B edo D eredian heitzeko?





Pentsatzen dugu guzti hau eta, batipat, garrantzi handia duelako Ikastolentzat honelako pauso bat ematerakoan euskalduntasuna zihurtatzeak eta ez bakarrik pauso hau eman bitartean baizik eta aseguratuta egotea ondorengo urtetarako, ondorengo urtetan ez dadin gerta atzeratze bat, administralgoak horrela esan duelako behartze bat. Guzti hau ondo lotu beharra dagoela uste dugu proiektu batek, haur kopuruaz gain beste zenbait puntu ere argi ez bait dago: 3 urteko gelek jarraituko ote luketen sare publikora pasatzean, e.a. Nolanahi ere, pentsatzen dugu, euskararen alderako neurri diskriminatorioak eman beharra dagoela negoziaketa bat ematen baldin bada ere eta horiek ondo zehaztuta eta erabakita egon behar dutela edozein alternatibatan, praktikan ez direlako betetzen.

d. *Ikastetxea aukeratzeko* orduan, e.a. izango al dute posibilitatea haur erdaldunek eskola eskaldun batean heitzeko aurrerantzean ala aplikatuko zaio administralgoak duen erregla, A, B, D ereduak eta euskaldunentzat D eredia, erdaldunentzat A edo posibilitatu edo behartuko da erdaldunak ere D ereduan sartzea?

Zona erdaldunetan D eredia irekiko al litzateke? Haur erdaldunentzat, norbaitek eskatzen badu erdaraz ematea, nahi eta nahiez ireki behar al dute gela bat horientzat eta euskaldunentzat hori posible izango al litzateke Lege honen barnean? Edo euskarazko unitate bat irekitzeko zenbat haur beharko litzateke? Sare publikoan sartutako Ikastola horiek haur kopuru erdalduna dela bide B eredia ere ireki beharrean aurkituko al lirateke? Ikastetxe bat aukeratzeko orduan, arrazoi geografiko kanpo, Ikastetxe bat bere auzoan izatetik kanpo, beste arrazoi batzuk kontuan izango al lirateke, hau da, gurasoen aukera B edo D ereduan heitzeko?

Pentsatzen dugu guzti hau eta, batipat, garrantzi handia duelako, Ikastolentzat honelako pauso bat ematerakoan euskalduntasuna zihurtatzeak eta ez bakarrik pauso hau eman bitartean baizik eta aseguratuta egotea ondorengo urtetarako, odorengo urtetan ez dadin gerta atzeratze bat, administralgoak horrela esan duelako behartze bat. Guzti hau ondo lotu beharra dagoela uste dugu.

e. Garrantzi haundiko beste puntu bat *irakaslegoarena* da. Orain arte posible izan da ikastetxe pribatu bat, inolako legerik gabe, transferitu bihurtzea, kondizioak desberdinak ziren eta 3 urtetako epea oposizioak egiteko, e.a. Oposizioak egin dituzten zenbait herritan pauso hori eman da. Zentzu honetan, Lege honek, oposizioak egiteko 5 urtetako epea jarriko luke, epea luzatzen delarik, baina gelditzen dira puntu batzuk airean: zer gertatuko litzateke bakarren batzuk oposizio horiek 5 urteko epe horretan pasako ez bagenitu?, zer gertatuko litzateke titulugabeekin? Oraindik ere dextente dira, zer birtarteko jarriko liriteke titulua ateratzeko. Eta beste alde batetik, zentzu honetan guk iragan udan EEPak egin zuen jardunaldi batzuetan nahiko posible bezala ikusten genuen halako borondaterik balego estutze eta presionatzeko posibilitaterik ikusten zen Legeak onartzen duelako oposaketak pasa gabe zuzenean irakasleak funtzioari bihurtzea. Uste dugu, honelako Lege batetan irtenbide positiboago bat lor zitekeela «concurso de méritos» bat edo planteiatuz.

f. Irakaslegoaren *aintzinasunari* dagokionean, ez da batere jasotzen. Beste bide batzuk aurki daitezke hori jasotzeko, soldata' igoaz, e.a., baina edozein irakaslek pauso hau emateko orduan oztopoak jar ditzakeela uste dugu aintzinasun kontutan ez izatean.

Akats hauek alde batera utziz eta Lege proiektu osoari helduz, oraingoz behintzat, ez dela aurrera aterako gauza argia da eta bien bitartean Federakundeak lanean dihardula beste alternatiba baten prestakuntzan da gure ustea. Publiko nahi dutenak izan daitezela baina pribatuek ere ekonomi egoera berdina izan dezanaren bideak posibilitatu nahirik edo, bai bait dakigu EAJak ez dela eskola publikoaren aldekoa, konzertatu bidetik irekitzen dituelarik bere posibilitateak.

Eta hau badiogu adibide konkretu bategatik da: Santutxuko Ikastolari, publikorako bidean, hain kondizio egokiak ez izanagatik ere prest zegoena pauso hau emateko, Jaurlaritzak konzertatu bidea eskaini bait dio oraintsu.



Oharra: Hizlariaren sintaxia eta hizkera errespetatu ditugu.

Herri Batasuna





HEZKUNTZ SISTIMAREN ERREFORMA

Ikusten ari gara denbora batetik hona aldaketa garrantzitsu batzuk ezartzen ari direla irakas-kuntzan. Aldaketok eragina dute;

- Eskola instituzioan
- Irakaslearen sozio-laboral baldintzetan
- Hezkuntz sistiman.

LODE, estatu mailan, EIKE eta LOENU («Ley de ordenación de la enseñanza no universitaria», aurreproiektu fasean oraindik) Komunitate Autonomoaren mailan dira eskola instituzioak dituen araudi-rik nagusienak.

Sozio-laboral hesparruari dagokionez prestatzen ari dira Funtzio Dozentearen estatutua edo/eta irakaslearen estatutua. Estatutu honetatik ezagutu den lehen araua karrera dozentearen aurreproiektua izan da.

Lehen bi bloke hauetan haizeratzen diren arazo garrantziak ez luke hirugarren blokea, Hezkuntz Sistimaren Erreforma, ahaztu erazi behar. Berak ukitzen baitu irakasle haiek eta eskola instituzio hartan aurrera eraman behar den hezkuntz lana. Lana honek, kritikarako elementu batzuk eskainiz erreforma honi buruz informatu nahiko luke.

Erreformaren zergatia

Hezkuntz Ministeritzak, «La reforma de la enseñanza» izenez argitara emandako liburuan dioenez, Gobernu Sozialistak irakaskuntzan hasitako aldaketak honako asmo honetan leudeke oinarriturik: «Hezkuntz sistema egokiago eta kalitate gehiagoko bat lortzea».

«Kalitatea eta irakaskuntz porrotaren arteko erlazioa kontuz aztertu beharbada ere, kalitate handiago baten bila abiatzeko aipatzen den lehen arazoia egungo eskolaren porrotaren indize izugarria da, hain zuzen ere». «Kalitateak aurrera joko du aprendizai eraberrituz... Antolaketa baldintzen aldaketak ere mesede egingo dio... Irakaspenen berordenaketa berak ere positiboki eragin beharko du... Eskolak funtzio konpentsatorio batetan ihardun behar du».

Bigarren arazoina, aipatua izan arren Ministriak aipaturiko liburuan landu ez duena zera da; etengabeko aldaketan ari den gizarte berri baten beharrak eta hauei eskolak eman behar dien erantzuna.



Askoz ere zehatzago izan zen bigarren arrazoin honetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntz Kontseilariordea Informatika eta Irakaskuntza Euskadin ize-neko lhardunaldietan, (E.H.U.-ko ICE-k 1984eko azaroan antolatuak). «Produkzioa da gaur egun bizitza kolektiboak dituen dimentsioen arteko lehena» «premisatik abiatuz», «azoka azterketarik gabeko entrepresa bezala ez dezala Hezkuntza Sistimak joka» proposatzen du, aitzitik, ahalegin dadila Produkzio Sistimaren berezitasun eta beharrei erantzuten.

Laburtuz, esan genezake erreformak kalitatearen hobekuntza bilatzen duela Hezkuntza Sistema gizarte baten beharretara egoki dadin. Behar hauen zehaztapenean oinarritzko papera izango du indarrean den Administrazioaren ideologia, isladatuko baita jokuan sartzen diren faktoreei (Produkzio sistimaren eskakizunak, gizartearen demokratizazio eskakizunak, gizabanako eta gizarte osoaren bila-kaera kontzepzioa) emandako garrantzian.


Irakaskuntz-erreformaren berezitasunak

Hasitako Hezkuntz-Sistimaren erreformak bereizgarriok izango lituzke:

1. Erreformaren eragina jasotzen duen *edukia*, honoko hauei zuzendua:
 - Hezkuntz-Sistimaren egitura berriei.
 - Egitura hauek behar dituzten zerbitzuei.

2. *Ezarrera metodoari dagokionez*. Aurrekoetan bezala Dekretoz egin ordez, Prozesua deritzon metodoa erabiltzen da. Modelo honi jarraiki proiektu edo lan hipotesia bat proposatzen da (bertan, erreformatu nahi den zikloaren egitura, kurrikulum-a, metodologia, langilegoaren antolaketa e.a. kontutan hartzen direlarik) helburu batzuren atzetik; hipotesi hau espermentatu eta neurtu egiten da; berlandu ondoren espermentazio hesparrua hedatzen joaten da zentzu guztientzat baliagarri gerta daitezkeen proposamen batzuetara iritsi arte.

Erreforma ezagutu eta aztertu ahal izateko bi puntuok kontuan hartu beharrekoak dira.



Helburen definizioa: giza eztabaida baten beharra

Edozein erreformak honoko premisa hauetatik abiatu behar du:

- Abiapuntuaren analisia eta krisiaren zergatien egiaztapena.
- Hezkuntz-Sistema berriaren Helburu Nagusiaren formulazio publikoa.
- Erreformatu behar diren egituren definizioa eta Helburu Nagusiekin bat eginez alternatiba gisa hartu behar diren erizpideak.

Hastapen fase honetan oinarritzkoa gertatzen da *eztabaida sozial zabal bat*, bertan, hezkuntzan esku hartzen duten guztiek bere eritzia eman dezaten. Horrela bakarrik iritsiko baita krisiaren zergatien analisi zuzen eta lortu beharreko helburuen formulazio egoki batzuetara.

Administrazioak, halere, badihardu jada Erreforma batzuren diseinuan, eztabaida sozial hori eman gabe, Sistiman lortu nahi diren Helburu Nagusiak eta erreforma prozesuan dauden egiturei dagokien helburu zehatzak argitara eman gabe. Badirudi oinarritzko puntu hauetan kontsentso orokor bat dagoela eta eztabaida alferrikakoa dela adierazi nahi dela. Baina gauzak ez dira horrela. Garbi dago, eztabaida guztietara zabaltzen ez den heinean talde indartsuek izango direla Administrazioa zentzu konkretu batetan bultzatuko dutenak. Ez da oso gaizkipentsatua izan behar jakiteko Produkzio Sistimaren sektorerik indartsuenak eta irakaskuntzan interes handien dituzten taldeak izango direla eragin handiena lortuko dutenak.

Euskal Eskola Publikoaren alde gaudenok eskatu eta ahal dugun neurrian bultzatu beharko genuke eztabaida sozial hori. Eta bertan, defendatzen dugun hezkuntz-alternatibaren postulatuak jasotzen dituzten egituren ezarketaren alde garbi azaldu.

Eztabaida sozialarekin edo eztabaidarik gabe ezinbestekoa da *lortu nahi diren benetazko helburuak* ezagutzera ematea. Ez dira nahikoak asmo deklarapenak, ezta, MEC-ek egiten duen bezala, proiektu kontrajarrietara eramah gaitzaketen formulazio zabal eta konkreziorik gabeak. Ez dugu ere mintzaera superteknikatua atsegin, izan ere, irakaslegoaren gehiengoarentzat ulerkaitza izatetik at, itoerazi bait ditzake sormena, heterogeneitatea, afektuen mundua, baldintza sozio kulturalak eta hezkuntzan oinarritzkoak gertatzen diren beste hainbat elementu.

Helburuek garbi utzi beharko dute nola erantzun nahi zaien gizartearen berdintasun eta askatasun eskaerei eta nola kasu, egingo zaien Produkzio-Sistimaren berezitasun eta beharrei.

Erreforma prozesuan dauden hezkuntz-egiturak

Erreforma bakoitzari buruzko informazio osoa ematerik ez badago ere, interesgarria deritzogu martxan edo hastekotan diren erreformen zenbake-ta bat egitea:



Erreforma prozesuan dauden *egiturak*:

1. OHO-ko Goi Zikloa (Aurki hasiko da Hasiera eta Erdiko Zikloaren erreforma berria; Haur Eskolen erreforma apartaturik utzia izan da, ekonomi eta administrazio arazoak direla medio seguraski).
2. Ertain Irakaskuntza: Lehen Zikloa, bi urtetakoa, Batxilergo Orokorra, non BBB-ko eta 1. eta 2. kurtsoak eta L.H.-ko (Lanbide Heziketak) lehen zikloan batzen baitira; Bigarren Zikloa, Goi Batxilergoa eta Lanbide eta Teknika Irakasketak, adar eta aukera ezberdinekin.
3. Hezketa Bereziaren plana.
4. Osabidezko Heziketa.
5. Lanaren bidezko Heziketa
6. Euskalduntze ereduak
7. Informatika irakaskuntzan.

Prestatzen ari diren *zerbitzuak*:

- a) Hezketa berriztatzeko teknikoak (egun, ingurune, esperimintatze, teknologoa eta informatikakoak), euskara koordinatzaileak eta multiprofesional taldeak barne hartzen dituen Aholku eta Baliabidetegiak (ABT).
- b) Irakaslegoaren euskalduntzerako IRALE
- c) Irakasle ikasketak irakaslegoaren antolaketa berri gisa.
- d) Administrazio eredu berria

Hezkuntz Sistimaren egitura orokor berria

Joandako azaroan, eskematikoki oso eta ofizialtasunik gabe (aldaketak paira ditzake, beraz) Hezkuntz Kontseilariordeak aurkezturiko eta jite partziala duen erreforma honek, Hezkuntz Sistimaren egitura orokor berri bat itxuratzen du. Euskal Hezkuntz Sistimak bi berezitasunok izango ditu:

1. *Hezkuntz ekintza oinarrizko hiru ildotan egituratzea.* (Ikus, I eskema).

Irakaskuntza erregelatuen ildoak Hezkuntz-Administrazioari dagokio; beste biak beste Instituzioekin elkarlanean edo partuergoan egingo dira.


«Egun Hezkuntz Sistimak aurre egin behar duen erronkan balioko erantzunak lor ditzan –zioen Kontseilariordeak–, *Liberatu egin behar dugu Irakaskuntza erregelatuen hesparrua*, ikasketa planen gogortasun eta gehiegizko edukietatik, batetik, eta, eskola-porrota egoerak gainditzeko egiten diren ahaleginetatik bestetik».

Edukien murriztapena, gaur egun ikasketa planetako batzu kenduz, eta beste batzu, joku, irudimen, sormen, plastika eta dinamika kutsua dituztenak alegia, eskolazkanpoko eginkizunetara pasatuz egingo da. Sistema erregalatuak teknika eta adimen ahalmenen (Ikasten ikasi) lantzeari kasu egingo die, eta baita ere teknologia berrien erabilera eta eza-gutzarako beharrezkoak gertatzen diren edukiei. Hauxe ezarri nahi da datorrenen ikasturtean Irakaskuntzan Ertainean, soinketa eta garrantzitsutzat jotzen ez diren beste arlo batzu murriztuz. Joera honek goi Ziklo berrian eragina izango duela pentsatzen da.




Hezkuntza Sailera jo genuen honoko kuadrook euskaraz lortu asmoz, baina jakin izan genuenez, oraindik ez dituzte itzuli. Ez diogu berea den lan bat eskuartetik kendu nahi izan laister euskaraz kaleratuko duelakoan.

ESQUEMA N.º 1 - SEGMENTOS BÁSICOS DE LA ACCIÓN DOCENTE



- | | | |
|--|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Completar la educación FÍSICA y CULTURAL. - Integrar al joven en su entorno social. - Despertar, promover actividades de fraternidad, solidaridad, tolerancia. - Incitar acciones promotoras y de equipo. - Fomentar el ASOCIACIONISMO JUVENIL. - Inducir el cultivo de las letras y las artes. | <ul style="list-style-type: none"> - Reducción del fracaso y rechazo escolar a niveles < 8%. - Reducción de contenidos que permita instrumentar: <ul style="list-style-type: none"> * Experiment. < 33% T.L. * Aprender a aprender. * Autoestudio * «Matematizar» el saber. * El acceso al conocimiento y empleo de la INFORMÁTICA/MICRO ELECTRON. * El uso interdisciplinar de los conocimientos. * La simulación. - Adecuación de los flujos académicos a los requerimientos del PAÍS. - El avance en el campo de la INNOVACION EDUCATIVA. | <ul style="list-style-type: none"> - Lograr la correcta inserción social del joven mediante: <ul style="list-style-type: none"> * Acciones de EC. integrada en el medio escolar ordinario. * Reincorporación al ámbito reglado. * En su defecto o caso discontinuidad estudios reglados, prepararlo prof. mediante la formación ocupacional. - Lograr la plena escolarización hasta 17 años. - Desarrollar acciones preventivas contra la Drogodependencia : Delincuencia. |
|--|--|---|



Modulación

- Centro Docente / Plan de Centro.
- Módulo EDUCATIVO / Integrado en Centros.
- Sub-Sistema Educativo: 50/60.000 Hab.
 - * Centro Apoyo y Recursos.
 - * Centro Selectivo de E. Compensatoria (CSE)
 - * Centro de Formación Ocupacional (CFO)
- Demarcación Zonal / Delegación de Zona
 - * Agrupa a 1 ó más S.S. Educativos.

- CB = Centro de Enseñanza Básica
- CM = Centro de Enseñanza Media
- CIEC = Centro Integrado de Educ. Compensatoria

Bestalde, porrot egiten duten ikasleen kopuru garrantzitsu bat, 11 urtetik gorakoak (orain 14tik 16ra bitarteko epean hasten da), Osabidezko hezketara bideratua izango da, batzu errekueratzeko, eta Lanaren bidezko irakaskuntzaren bidez gehien-goia lan mundurako prestatzeko. Horrela, eskola porrota irakaskuntza erregulatuen barnean % 8tik behera jeitsiko da era bitxi baten bidez, porrot egin dezaketenak ikasketa horietatik atereaz alegia.

Hezkuntz Sistimaren ildokatze hau dela eta, antzematen den hezkuntz kontzeptioa urrutiratu egiten da eskolako hezketaz izan ditugun erizietatik, oinarriko irakaskuntza orokorrean batipat. Hezkuntz Sailerik ezagutzera ematen ari den zenbait erizpide eta dokumentuak aditzera ematen dutenez ez litzateke ildokatze hau kontzeptuen mailako zerbait, benetako formetan gauzatu nahi den zerbait baizik.

2. Eskola Sistimaren modulatzeko berria.

Hezkuntz mapa eskualdeko modulotan egitaratuko da. Komunitate Autonomoko lurraldea eskualdeka zatituko da, bakoitzak 50-60.000ren bat lagun hartzen dituelarik, eta hauetariko bakoitza ere 10-15.000ren bat laguneko modulotan.

Ikastetxe bakoitzak bere helburuak eta hezkuntz berrikuntzarako programak egiterakoan autonomia izango du eta «Ikastetxeko Egitamuan» jasoko dira. Gainera, modulo bakoitzaren barnean, ikastetxeak koordinatu egingo dira «Ikastetxeen Egitamu integratua» oinarrituz. Eskualdeko Osabidezko Hezketarako hautapen zentru bat, Lanaren bidezko Hezketarako Ikastetxe bat eta ABT izango ditu.

Eskualdekatze honetan ardatz gisa azalduko den elementua ABTa izango da. ABTek egingo dituzte Eskualdeko Ekintza Egitamua. Ikastetxeko Egitamua eta Eskualdeko Ekintza Egitamuaren artean, logikoki, elkarren arteko menpekotasun bat eman beharko bada ere, funtsezkoa gertatuko da bigarrena, beraren bidez iritsiko baitira ikastetxetara Administrazioaren orientabideak. Eraberean, ABTa izango da eskualde bakoitzean, eta noski ikastetxeetan, hezkuntz berrikuntzaren dinamizatzailea. Hauek izango dira, zalantzarik gabe, Hezkuntz Sistimaren Erreformatarako bideak bai esperimendatzeko fasean, eta baita jeneralizatzekeko mementuan ere.

ABTek izan dezaketen –eta segur aski izango duten– protagonismoak, beraien demokratizazio eta jertioa. EEEren (Eskualdeko Ekintza Egitamuaren) prestaketa eta ebaluaketan irakaslegoaren (eta hezkuntz komunitatearen beste estamentuen) partehartzearen arazoa pizten du. Benetan demokratiko eta partehartzea bultzatzen duen ABT bat sistimaren dinamikarako garrantzitsua gerta daiteke. Guztiz administrazioaren eskutan dagoen ABT funtzionarizatu batek hezkuntz ajenteen errefusa jasan dezake eta zentzu dinamizatzailea galduz, ikastetxeen eginkizunean inposatzen den Administrazioaren beso luzea bilaka daiteke.

Erreforma ezartzeko metodoa: Prozesu metodoa

Hasi den Erreformataren ezaugarriarik aipagarriena ezartzeko metodoa da, Prozesua.

Metodo honen hautaketa ez da agian eskuhartzea bultzatu asmoz, arazoak duen konplexotasuna (askotan konponbideak ez baitaude garbi) eta antolakuntza egituraren konplexutasunak eraginda baizik, izan ere masifikazioak zaildu egiten baitu Dekreto-ren bidez iristen diren aginduen onarpena.

Prozesu metodoak Administrazioaren jarrera aldatzea bat suposatzen du, baina baita ere aurrera egiten duen heinean jarreraren bat hartu beharko dugula denok Erreformataren aurrean Prozesu dinamiko bati «bai», «ez» edo «bai, baina» bat ematera behartzen gaituzte eta honek partehartze kritikiko edo kolaboratze era bat dakar. Honen bidez partehartu nahi izan ez dutenen «a posteriori»ko kritikak baliorik gabe uzten dira, eta, azkenean ezarri nahi izango den erreforma legeztatzen da.

Horrexegatik, zein unetan eta nola joka dezakegun jakin ahal izateko, garrantzitsutzat jotzen dugu prozesu honen faserik funtsezkoenak ezagutzea. *Erreforma prozesu baten faseak honoko hauek dira:*

- Erreformatu nahi den egitura bat aukeratu, beraren bidez lortu nahi diren helburuak finkatu eta berauekin bat datorren proiektu bat diseinatu.
- Esperientzia praktikan jartzea.
- Esperientziaren ebaluaketa.
- Erreformataren hedaketa.

Esperientzia praktikan jartzea

Fase hau ikastetxe eta bakoitzean esperimendatu nahi den proiektuen aukeraketarekin hasten da. Une honetan ikastetxeek beraien partehartzea edo eskuhartze eskaintza garbi izan beharko dute.

Bestalde, sortzen ari diren koordinaketa zerbitzuetan funtzioak asumituz eman daitekeen partehartze indibidualaz ere pentsa daiteke.

Esperientziak aurrera egiten duen bitartean ezinbestekoak izango dira beste elementu batzuren artean koordinaketa, baliabideen bidez laguntzea, esperimendatzaile izango den pertsonen formazioa, esperientziaren jarraipena, esperientziaren zerbitzuan jarri behar diren bitartekoaren kontrola. Elementuok ez lukete soilik Administrazioa eta beronek sortzen dituen zerbitzuen eskuetan geratu behar. Esperientziaren jarraipena eta kontrola bereziki objektibotasun gehiago izan dezan, zabalkundea –Erreforma batek eta honetako ezarpena izan dezan funtsezkoa den elementua– gehitu eta benetakoa izan dadin Administrazioetik at dagoen jende eta taldeen eskuhartzeaz egin beharko litzateke.

Esperientzien ebaluaketa

Fase honetan, lortutako emaitzak, proposaturiko helburuekin erlazionatuz analizatu behar dira; baldin eta osoki nahiz partzialki negatibotzat joko babiliz ebaluaketa, hipotesiak berlandu edo helburuak berregokitu beharko liriateke; Positibotzat jotzen denean esperimenteratutako proposamenaren balioa baieztatzen da.

Erreforma esperientzia baten ebaluaketan kontuan hartu beharrekoak dira:

- Jarritako helburuak lortzen al diren.
- Zein neurritan aldatzen diren, erreformatu nahi diren egituretan salatuak gertatu ziren krisiaren zergatiak.
- Beste eskola komunitatetan berlandatzeko aukera maila.

Batzutan, erreforma premiak ebaluaketa zientifiko estu baten beharra ahazten duela eman dezake. Halere, ezin daiteke Prozesuaren bidez Erreforma bat aurrera atera ebaluaketa hori egin eta emaitzak argitara ematen ez badira. Eta ezin daiteke ebaluaketa eritzi subjektiboekin nahas oso estimagarriak badira ere azken hauek.

Erreformaren hedaketa

Prozesuaren azken fasea da eta esperimenteratutako egitura eskola komunitate guztietan aplikatzea du xedetzat. Hedaketan garbi geratu beharko dute honoko puntuok:

- a) Egiturari dagokionez: Guztiek uler dezaten behar adina landua beharko du izan; egoera ezberdinetara egoki dadin behar bezain maila; eskakizun berrien arabera aldatzen joan dadin nahiko irekia.
- b) Bitartekoei dagokienez: Garbi geratu behar du esperimenteratze fasean erabilitako bitartekoen artean zeintzu diren ezinbestekoak lan proposamena aurrera irten dadin.

Azkenik, berrituriko egiturak praktikan jartzen direla, ikastetxeak behar dituzten bitartekoetaz hornitzen direla eta, kalkulaturiko emaitzak lortzen jarraitzen dela garantizatzen duen kontrol sistimaren bat mantendu beharko da.

ADARRA Pedagogi Taldea

Itzulpena: *Irakasle Elkarte*





HEZKUNTZA, BRASILEN

Urte asko igaro ditu Brasil-ek, hezkuntza kaxkar eta nagusikeria pean, akats eta hutsunez beterik, herriaren zati handi bat ezjakintasunean murgildurik... Baina, «Errepublik berria» dela eta, badirudi gobernuak, beste zenbait eginkizunekin batera, hezkuntzari dagokion lekua eskuratu nahiean agertzen ari dela. Herrikide guztiei oinarrizko ikasketak eskaini nahi dizkie, behin betikoz ezjakintasunarekin bukatu asmoz eta herriak merezi duen hezkuntza maila oparoa bultzatuz.

Baina hau horrela gertatu ez bada, ez da izan herrian gizon ospetsurik ez zegoelako (adib.; hor dago oraindik ere Paulo Freire jna. jo-ta-ke hezkuntza arloan lanean), beti gertatu ohi den bezalaxe, jendearen ezjakintasuna, besteen nagusikeria eta aberastearen oinarri izan delako baizik, era honetan, herriko seme argienak isilpera eta herbestera bultzatuak izanik.

Oraingo Gobernu honek zintzotasunez jokatu nahi badu, behintzat, zortzi miloe haur eta 20 miloe ezjakinetatik, 1/4 bat 15 urtetik gora dituztenak direlarik. Dena den, eta gaur egunean, bizi dituen kezka garrantzitsu hauei erantzuten saiatu beharko du:

a) Brasildarrak, hezkuntzaren inportantzia jabetu beharrean daude, herria gizarte honek bizi duen maila berean bizi dadin, eta hortarako:

- Jendetzaren akuilagarri diren zabalkunde lagungarriak egin beharko ditu.
- Ministeritzak, lan sakon eta egitarau on bat bideratu beharko du, hezkuntza egoki baten oinarri eta helburuak antolatuz.

b) Gaur egun dagoen hezkuntza hau hobegotu beharrean dago, eta hau lortzeko:

- Ematen diren ikasketak, herriaren gogoko eta beharrei erantzungo dietenak izango dira.
- Irakaskuntza eta ikaskuntza orduak gehitu, eskola orduak lau ordutara gutxienez igoaz, zeren orain hiru ordutara mugatzen dira gehiena, egunean zehar hiru talde ezberdinetako hiru txanda egiten bait dira.
- Guraso eta ikasleak, irakasleekin batera, irakaskuntzako arau, egitarau eta abar guztietan parte hartzeko eskubideak lortu ahal izatea.

—Behar diren idatzi eta tresna didaktiko guztien eskurapen dohaina lortzea.

—Eta... oinarri oinarrizkoa den laguntza elikagarria gosearen ondorioak zuzentzen joateko, bideak hautatzea.

d) Magisterioa indartu eta go-raipatu:

—Orain arte jasotzen diren lansari farregarrien igoera.

—Irakaskuntza honetako, gai eta helburu guztiak aztertzea eta hobegotzea.

—Irakasleen eskubideak aintzakotzak hartzea.

e) Gobernuak, nola edo hala lortu behar du herria oinarrizko hezkuntzaren jabe izan dadila, dohaintasunaren barnean eta diru banaketa on baten bidez, horretarako behar den dirua lortuz. Ume guztientzako, ikastetxe guztietan lekua, txandak eta kopurua ongi antolatuz.

Hori dena da, oraingo Gobernuaren nahia, eta horretarako herrian dauden talde, elkarte eta indar guztien laguntzaren beharrean aurkitzen delarik, hasi auzoetako talde txikienetatik eta ministrarietaraino iritxiz. Horiek dira, bada, gutxi gora

behera oinarrizko hezkuntzari buruz, Gobernuak dituen helburuak.

Bitartean, herria ez dago geldirik, edo hobeto esan, ez da inoiz geldirik egon, badakigu denok, 1960ean Paulo Freire eta bere inguruko taldeek, Alfabetatze modu berri bat nola sortu zuten, erantzun baikorra eta aberatsa lortuz. Baina, 1964ean Gobernuak (militarrak) irakaskintza moeta honekin zeukan arriskua ikusirik, Paulo Freire eta beste zenbait irakasle espetxeratu egin zituen eta azken batean herbes-teratu ere bai.

Historian zehar herriak, ez ditu bere seme argi eta ospetsuak galdu, berriro ere hemen dago P. Freire inoiz baino adoretuago eta abertzaleago eta jarraitzaile multzo polit batekin.

Gaurko egoera ez da garai hartakoa bezalakoa, Brasil osoa dago ernai, begi zabalik, zer gerta daitekeen eta nora joko duen begira. Askatasun giroa nabaritzen da, eta une honetan gure iraskale miresgarrienak galdezka dabilta ikastetxe eta herri-sektore guztietan, zer-nolakoak diren herriaren nahiak eta beharrak. Badirudi erdibide batera iritxi nahi dela, alde batetik, jendea kezka kanporatzen dabil, han edo hemen jakin mina ase nahian, eta nola ez, herriak bizi duen egiazko gosea eta ez-beharra ezabatu nahian, baita ere.

Gauzak horrela daudelarik, Paulo Freire eta beste bere kidekoek edota, ingurukoek jaso dituzte herriaren galderak eta kezka. Horrela bada, São Paulon bizi garenok batipat, beraiek jaso eta eztabaidaturik eritzien eta irtenbideen berri badugu eskuartean. Guztion onerako izango den asmoz, agertzera noakizue.

Pedagogia eta politika, zati ezinezkoa

Ez dago Pedagogi arloan pedagogi soila den ekintzarik, ezta Politika arloan politika soila den ekintzarik ere. Beraz, politikak pedagogiaren laguntza behar du berak eratutako egitarauen garaile izateko, zeren, politikaren ezaugarria garailea izatea bait da eta, horretarako herrikideen etsipena lortu behar du, etsipen hori delarik pedagogiaren ezaugarria. Era berean pedagogiak lortzen duen etsipen hori, garaile izatera iristeko, politikaren laguntzaren bidez lortzen den gauza da. Bakoitzak bere eremu berezia du, baina, eremu bakoitzaren nahiak eta beharrak ez du bestearen aurkezpena ukatzen onartzen baizik, osaketa eta oreka batetara iritxiz. Adibidez, Diktadura garaian, ez al da izan herriak egin duen burruka eta iraultza, pedagogiako lanik politena bilakabide politiko barnean...?

Horrela, gela barnean, hitzaldietan, herri-taldeetan, alderdi politikoetan e.a., egoera guztietan *hezitzaileak* gara. Hezitzaile izatea ez da lanbide berezia, edota, une edo egoera berezietara mugatzen den jokatubidea, ez, hezitzaileak gara edo ez gara. Hezitzailetasuna jarrera politikozko egunerokotasunean laguntzen gaituen ezaugarria da.

«... Eu sou político na propria especificidade da pedagogia. É isso que eu gostaria de deixar claro. É óbvio que nem todos pensam como eu, e no Brasil há muita gente que não pensa igual a mim. Eu penso assim, e me sinto profundamente político mesmo quando me encontro no espaço da pedagogia»

«*Pedagogia dialogo e conflito*. Moacir Gadotti, Paulo Freire, Sergio Guimarães. Cortez edit. São Paulo 1985, 31. orrialde.)»


Erizpide honen ondorioak


Erizpide eta jokaera honen ondorioak, hauek dira hezkuntza arloan:

- Partizipazio eta arriskua.
- Boterearen birsortzea.
- Demokrazia.
- Irakurtzen, idazten eta zenbatzen ikastea (+) gehi entzuten, hitz egiten eta baita oihukatzen ere.

1) Irakaskintza mailan, gehiengotan, zatiketa bat bizi du ikasle eta irakasleak, ikastetxe barnean, alde batetik ikasgaiak daude eta bestetik, ikastetxearen barne araudiak, alde batetik, jakintza eta bestetik, bizitzeko era.

Badirudi ikaslearen eremua gaiak jaso eta ikastea dela bakarrik, barne araudi eremuan ezer eginik ez duela adieraziz. Beraz, hezitzea gaiak menderatzea bakarrik dela dirudi. Baina hau ez da horrela, zeren, egunerokotasunean bizi osoan kokatzen da hezkuntzaren eginkizuna, eta ikastetxe, unibertsitate, e.a. baten erakuntza eta barne araudietan parte hartzeak, ikasle eta irakasleak, gaurko elkarte barnean sustraituz ikasketen osaketara bideratzen ditu. Ez da denbora galtze bat, hezkuntza oso eta orekatua lortzea baizik, gizarte politikoaren alderdiak aztertuz eta bideratuz bakoitzaren eskubide politikoa zainduz.





Edozein ikastetxe gizarte zati bat denez; eztabaida, elkarrizketa, burruka, azterketa, burujabetasun eta partaidetzaren lekua da. Beti noski, araubide eta ardura giro batetan.

2) Bi motatako ahalmenak aurkitzen ditugu hezkuntza mailan, bat ohizkoaren irakaslearena eta bestea aldiz, irakasle iraultzailearena.

Lehenengoaren ahalmen guztia, bera, irakaslea, hots, jakinduriaren jabe delako horretan oinarritzen da.

Bigarrenarena berriz, berak duena besteei aurkezteko eta elkarrekin aurkitu eta aztertzen den jakintzan oinarritzen da. Jakinduriaren mirabe eta laguntzaile delarik.

Lehenengoak, ikasbidean jartzen du bere ahalmen eta indar guztia. Bigarrenak aldiz, ikasbidea askatasunaren bide bat bezala bizi du.

Hezkuntza iraultzailearen barnean, benetazko boterearekin jartzen gara harremanetan eta une berean zapaltzen gaituen boterearen mugak jasaten ditugu. Bide iraultzaile honen barnean zapaltzaileen boterearen ezabatzea izango da helburua, baina ez bakarrik ezabatzea, gizarteak behar duen boterearen birtortzea baizik, berriro ohizko botere moetan erori gabe.

Guzti honek ez du esan nahi irakaslea eta ikaslea berdinak direnik, maila ezberdinetan bait daude, gerta ezinezkoa zera da; irakaslea, berak erabiltzen duen ikasbidearen jaun eta jabe bakarra egitea, berak duen jakintza ikasleei ezarritz.

Ikastetxea gizartearen zati bat izanez bere ispilua da, baina une berean, gizartean dagoen botere zapaltzailearen iraultza lekua ere bai,

berari dagokion hezkuntzaren salaketaren bidez gizartea salatzen duelarik.

3) Hezkuntza demokratiko baten beharra argi dago, baina hau ez da gauetik goizera egiten den gauza, gizartearen bilakabide barnean kokatzen da hezkuntza demokratikoaren bilakabidea. Bi alde daude landu beharrak lorpen honetan:

Batetik, Estatuak ezin du ikastetxeetako burujabetasuna ezarrerazi, ikastetxe bakoitzaren lana eta lorpena delako. Bestetik, ikastetxe bakoitzak, Estatuarekin dituen harremanak, landu eta aztertu beharko ditu burujabetasunaren xedea lortzearen. Burujabetasuna eta demokrazia ez dira gauza bera, ikastetxe batek burujabetasuna lor dezake baina nagusikeriaren giro barnean, burujabetasunaren ikuspegi



maltzurra izango litzateke hau, ikus dezagun zer gertatzen den Chilen Pinochet-ekin, burujabetasunaren jabe diren zenbait ikastetxetan jauntxo taldeen menpean bizi dira, une honetan agintariengandik gertuago eta zapalduago aurkitzen direlarik.

Jauntxokeriatik ateratzen ari diren herriek ezin dituzte ikastetxe bereziak (experimentalak) eduki, denak izan behar dute bereziak, denak ikastetxe berriak, bide eta barne araudi berrien bila lanean dabiltzan ikastetxeak.

Hezkuntza oinarritzen den piramide hori hankazgora ipini beharrean gaude.

4) Oinarrizko hezkuntzan ikasten diren gauzak hauek dira; irakurtzen, idazten eta zenbatzen, baina ikasi behar da baita ere, entzuten, hitzegiten eta oihukatzen, ikerketan oinarritzen den irakurketa berridazterakoan mundu berri bat sortzen dugularik. Entzutera eta partehartzera eramaten gaituen hezkuntza, erabakiak hartzeko laguntzen digun hezkuntza, gaurko egunean jokabide jator batean kokatzeko aukerak eta bideak aztertzen eta argitzen dakien hezkuntza. Herriaren beharretan oinarritzen dena, zeren zapalduta eta isilik egon behar izan duen herriak, oihukatuz lortu beharko du hitz egiteko eskubidea. Ongi aukeratutako oihu herrikoa beharko du izan.

«... Se o povo brasileiro, se as classes populares têm sido proibidas de falar, se a experiência histórica desse país é a do silêncio dessas classes, acho que é exatamente «gritando» que elas vão obter o direito de falar» (120 orr).

(PEDAGOGIA DIALOGO E CONFLITO. Moacir Gadotti, Paulo Freire, Sergio Guimaraes. Cortez Edit. São Paulo 85)

Pedagogi iraultzailearen bidean gaude, gatazkaren pedagogi bidean, zapalduaren pedagogia da, ezberdinen artean elkarrizketarako laguntzen duen pedagogia, baina inoiz ez bata besteen aurka daudenen artean zeren hauen artean hitzarmenak bakarrik egon baitaitezke. Hitz batez, pedagogi askatzailearen bidean, bizi nahi du herriak.

Hezkuntza herrikoi baten bilakabidearen laburpena

(Hezkuntza herrikoiari buruz idazten dudana, alfabetatzeari dago-kiona da bereziki, hau delako Brasilen nabaritzen den lehenengoetariko beharra).

Iraultza militarra sortu zen garaian (1964ean) eta Paulo Freire herbesteraturiko une berean, hezkuntza herrikoiaren aztarnak hiriburuetan aurkitzen ziren gehienbat, baina nekazal eremuan ez zegoen deusik ere; 1968an aldiz, zapalkuntza handia jasan ondoren hirietan, nekazal eremura ihes egiten du zenbaitek, ekintza hau aurrera eramanez. Dena dela, beronek zuen indarra eta jasotzen ari zen erantzun aberatsa itota geratu zen horrela jarraituz urte mordo batetan.

1982an hauteskuntan izan zirelarik (gubernadore, alkate, deputatu eta senatore aukeratzeko) eta herri askatuago giro baten bidean gauzak antolatzen zirelarik, lehenengo aldiz gobernuko erakunde eta alderdi politikoak (eskubitar zapaltzaileenak ere bai) arazo honetaz ohartzen hasi ziren. Baita ere, une berean, hezkuntza herrikoiaren mailan lana egiten hasi zirenak, gobernuko erakunde babesa eskatzen eta eskuratzen hasi ziren, bide errazagoak aurkituz erakunde barnetan.

1983an, Brasileko lehendakaria hautatzerakoan, hauteskunderen bidez, herriak eskatzen zuen eskubidea izan zen. Denok dakigunez Tancredo Neves parlamentuak hautaturiko lehendakaria izan zen azken batean, herriak zeukan itxaropena ilundu zelarik bere heriotzarekin.

Gaur egun, behar beharrezkoa ikusten da, hezkuntza herrikoiaren alde lana egiten ari diren guztiengan nolabaiteko lotura bat Brasil osoari begiraturik. Taldeak banaturik dabiltza alfabetatze lanetan eta badirudi bakoitzak bere leku era desberdinak dituela, besteekiko loturarik gabe.

Bestalde, herbesteratuak itzultzen ari direla, era berriak dakartzate eta indar berriak ere bai; Une aberats eta sortzailea bizitzen ari da herria.

Alfabetatze kartilak, talde bakoitzak eskuz egindakoak dira gehienak.

Baina, nondik datorkio Brasil-i dirua alfabetatze lana egiteko? Gehiengo Europako iparraldetik, erakunde internazional batzutatik, beraiantzat ere aberaskarria bihurtzen den zerbait bait da. Lurralde hauetan egiten diren azterketa eta aurre-projektuak, denen aberastasunerako jotzen bait dira.

Esan beharra dago baita ere, Brasileko Eliza (zati bat bederen) tartean sarturik dagoela ekintza honetan.

Irakasle bezala lan egiten duten ia gehienak, unibertsitariak dira, beraien ikasketen osagaitzat hartzen dutelarik ekintza hau. Nekazal eremuan aldiz, beraien artekoak dituzte irakasle gehienak.

Garrantzitsuena, lan hau eramanez behar duten monitoreak ongi aukeratu eta prestatzea da.

Alfabetatze mailan, bi era nabarmen agertzen dira:

- bata, edukiei garrantzi handiena ematen diena eta,
- bestea, bilakabideari, noski edukiaz oharturik.

Bigarren honetan kokatzen da Paulo Freireren ikasbidea eta gizon famatu eta ezaguna dugunez, berak antolaturiko alfabetatzeko era edo modua, nola dagoen egun São Paulon agertzera noakizue:

Lehenik esan behar du, ekintza pedagogiko honen berezitasuna eta indarra, berak duen filosofian datzala, hots, ez dela irakurtzen eta idazten ikastea lortu nahi duen gauza bakarra, gizarteak bizi duen egoeraren barnean murgilduz eta azterketa eginez irakurtzera eta idaztera heltzea baizik. Beti elkarrizketa eta elkarrekiko (irakasle-ikasle) harreman bidean.

Une honetan 150 ikasle daude, São Paulon, eredu hau jarraitzen; 12 zentzutan banaturik, bi pedagoga eta Paulo Freire bera gainbegiratzailerik aurkitzen direlarik.

Beraz, 1982-83an eman ziren lehenengo urratsak bi auzo desberdinetan, eta joan den urtean 75 pertsona alfabetatu ziren. Hasiera batean diru laguntzarik gabe hasi ziren, baina gaur egun «Fundação

Wilson Pinheiro-k» laguntzen die, Sueziatik iristen delarik dirua, gutxienez irakasleek lansari txiki bat irabazten dutelarik.

Ekintza honek aski libre iharduten du, inongo alderdi politikori ez bait zaio lotzen.

Ikastaldeok egunean ordu t'erdiko lana dutelarik eta larunbat goizean irakasle guztiok (24 dira orotara) biltzen dira igarotako astea aztertzeke eta datorkienaren bideak eztabaidatu eta aukeratzeko.

Ikastaro honen azterketa abuztuan egingo da, horregatik, oraindik ondorioak jasotzeke daude bere osotasunean.

Ikasbideak hiru etapa ditu:

- 1) Munduaren irakurketa (Gizarte eta ingurugiroaren azterketa).
- 2) Mundua irakurri duen hitzaren irakurketa.
- 3) Hitz hori itzultzen duen hitz-idatziaren irakurketa.

Etapa hauen oinarrik, hitz sortaileak (edo PALABRAS GENERADORAS) dira.

Ikastaldiak eratzen ditu, baita eta kartila didaktikoak; eraiketa ikastaroaren zehar egiten den lana da, taldeak eratutako dinamika eta didaktika izanaz ikasketa honen pedagogi sortailea.

Gobernuak ere badu bere alfabetatzeko era, hortaz arduratzen den erakunde bereziarekin noski. Edukiei begiraturaz lan egiten dute gehienbat, erakunde hau «Mobral» da, beraz, Paulo Freire-antolaketari jarraitu asmoz jaio zen (bera herbesterratua izan zenean) baina, honek zezarman filosofia baztertuz eta diktaduraren politika indartzeko egina da beraz, Paulo Freire-k esaten duen bezala «... ate hoje o Mobral tem sido o oposto de mim».

Brasil handia denez, bai iparraldean eta baita hegoaldean ere, ekintza moeta desberdinak egongo direla ziur naiz, baina neretzat hurbilen zaizkidan xehetasunak laburtzen ahalegindu naiz, guztiontzat onuragarri izango den asmoz.

Arantxa UGARTETXEA





BAKEROAK

Projektua

Projektu honen ideia, nolabait, kalean aurkitu genuen. Konkretuki jendeak «bakero» batzuk erosten dituen egiten dituen bereizketetan; «rock» batzu direla, «levis» etiketa gorridun direla, etab.

Bestalde bageneukan aurretik ere Bergarako ehungintzaren azterketatxo bat egiteko asmoa, ikusirik batez ere, ehungintzak Bergaran eduki duen prestijio eta inportantzia.


Gure aurreko asmo honek eta egunero aipatu komentarioak entzuteak - bultzatu gaituzte projektua antolatzen.

Helburua «bakeroaren» prozesoa aztertzea litzateke. Hau da, Bergarako telareetan nola ateratzen den tela, gure herriko dendetara nola itzultzen den. Tela berori nola bihurtu den «rock» eta «Levis»etan.

Laburtuz, jendea kontura dadila praka guztiak tela berdinez egiten direla.

Bertan gaudelarik, azertu nork erabiltzen dituen «bakeroak», publizitatea, modaren eragina, etab.

Hau litzateke beraz, projektu honen historia. Zehaztasun gehiago honoko orrialdeetan doakizue.



ESTRUKTURA

A/ PROGRAMAKETA; HELBURU OROKORRAK.

ARLO Pedagogikoan;

- Lanaren antolaketa bat.

Materia bilketa.

Sailkapena.

Taldearen lan koordinatua.

Erakusketa.

ARLO konsumerista;

- Informazio lana.

Produktoaren jatorria, osagaiak.

Kalitate-kosto-prezio konparaketa.

HELBURU ERAGINKORRAK.

- Arroa eta ibaiaren azterketa,

kutsaduraren azterketa,

lantegien kokapena,

lantegiaren azterketa; makinaria. haria. kotoia.

publizitate motak: hitzez, musikaz.

bakeroaren diseinu desberdinak.

B/ ESPERIENTZIEN BILAKAERA.

*Girorapena;

- Bergarak (Villa mahonera) eduki duen testil tradizioa.

*Motibazioa; Bakeroen erabilkera; arrazoiak, moda, prezioa.

*Faseak; Prozesoreen zatiak hauek lirateke,

INGURU FISIKOA

arroa-ibaia

LANTEGIEN KOKAPENA

LANTEGIA MARTXAN JARRI BEHAR DA

Gaia aztertu; kotoia nondik-nora

Haria egiten da

Makinaria; telarea, tinteak.

Demografi ondorioak; gehitzea,

PRAKAK EGITEA

DISTRIBUZIOA ETA PUBLIZITATEA

*Lanaren banaketa; Projektoaren iraupen kronologikoa hiru astetako izango da. Beronek ez du etenik izango. Begira egutegia.

Lan taldeak; Lana taldeka (kurtsoka) egingo da. Maila bakoitzak projektoaren atal bat landuko du.

*Ebaluaketa; Taldeko lana baloratuko da, era berean lan pertsonala ahanzi gabe.

D/ PERTSONALA. Irakaslegoari dagokionez aipatu

projektoan 13-k parte hartuko dute;

Plastika, maketa eta perfila eginaz.

Gizarte, arroa eta ibaia aztertuz.

Izadi, kutsadura eta materialeak aztertuz.

Musika, anuntzioen musika aztertuz.

Hizkuntza, Hiztegi publizitarioa (erdaraz).

Ingelesa, hiztegi publizitarioa (Inglesez).

Gai hauek tratamendu berezi bat edukiko dute maila bakoitzean, 6gn., 7gn. eta 8gn., mailatan alegia.

Honez gain bi teknikarik lagunduko gaituzte; bideo teknikaria, argazki teknikaria.

E/ BITARTEKOAK. Hau dena aurrera eramateko «medio» batzuk beharko ditugu:

argazki makina

bideoa

filmak (bideorako)

rolloak (zuri-beltz eta diapositiba).

laborategi bat (argizkiak handitzeko)

aintzinako argazkiak

erakusketa aretoa.

KONSUMO DEPARTAMENDUAREKIN KONPROMISOA.

Lan honen txostena eta bideo pelikula heurrei ematea.

Laburki eta eskematikoki aipatuko dugu maila bakoitzaren eginkizuna txostenean.

6. MAILA

Bakeroen historia

Kotoia: Historia

Landaretza

Ekonomia

Bergarako historia: Testilaren historia

Algodoneraren historia

Narvaiza-ren historia

Tavesa-ren historia

Novillas-en historia

Demografia: Aktiboa

Ez aktiboa

Testila / Eskulanaren banaketa


Eraskina

Talde lanak: Deba ibaibidea

Animalitza

Landaretza

Kutsadura



7. MAILA

Geografia: Bakero-industria duten herrialdeei buruzko datu laburrak.

Ekonomia: Narvaiza
Algodonera
Tavesa

Bakeroen prozesu industrialak: Ehunaren historia
Hiladuras Vergara
Algodonera
Urdidoen Makinak
Tindatze eta enkolatze
Prozesua.

Izadi taldea: Inkestak (Ibaiko satsadura aztertuz)
Depuradorak (Inkesten bidez)
Mikroskopio lanak.

Ekonomia taldea: Bakeroen kostoak. (Haria, kotoia, tela)
salneurriak
Marka ezberdinen arteko gonbaraketa
-kalitatean
-irabazietan
-prezioetan
-zenbat murrizten diren.

Inkesta taldea; Jendeak: «bezeroei buruz dakiena»
erabilera, e.a.
marka atseginenak

8. MAILA

Publizitatea: Idatzia
Irratia
Telebista
Inkestaren bidez:
-elementuak
-iragarkien ondorioak

Erakusketa: Argazki taldea
Kamara maneatzen ikasi
Argazkiak egin, Erreportai grafikoak
Errebelatzen ikasi.
Materialaren koordinaketa.

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Materiale bilketa	Materiale bilketa	BISITA	Materialea ordenatu eta aztertu	Materialea aztertu
BISITA	Materialea ordenatu eta aztertu	Txostena osatu	BISITA	Materialea aztertu
Txosten orokorra osatu	Erakusketa montatu Iruzkina	Erakusketa Iruzkina	Erakusketa Iruzkina	Erakusketa Ebaluaketa

SARRERA

«Gu 6., 7. eta 8. mailako irakasle eta ikasleok praka bakeroari buruzko prozesu industrialak eta kontsumoa aztertu dugu. Gai hau ateratzearren arrazoin nagusia, Bergarak betidanik izan duen garrantzia eta prestijioa izan da. Lan hau errazago egiteko talde desberdinetan banatu gara; Adib., inkesta talde, izadi taldea. Lan honetan hiru aste ihardun dugu, eta lan honen ondorioz bezala prestatu dugu txosten bat eta erakusketa bat».

Honela zioen Xabierrek, —8. mailako ikaslea— koordinaketa taldeko partaidea izanik prentsarentzat prestatutako elkarrizketan.

KOORDINAKETA TALDEAREKIN HIZKETAN

ISILIK: Nola gertatu zen proiektu honen hasiera?

IKASLEAK: Ba, maixuak etorri ziren esanez pentsatua zutela proiektu bat egitea bakeroei buruz, eta ea zer iruditzen zitzaigun.

ISILIK: Besterik gabe? Eta nola erabaki zenuten zuek?

IKASLEAK: Guk ez genuen erabaki, erabakita zegoen. Antolatu zituzten talde ezberdin batzuk eta hasi egin ginen. Beno, —beste baten hitzak—, gainera gustatu egin zitzaigun denoi, edo gehienek behintzat.

ISILIK: Ondorengo lana zein izan zen?

IKASLEAK: Materialak prestatzen hasi ginen. Ikusi nahi genituen gauzak gero ikasi ahal izateko eta kartak idazten hasi ginen baimenak eskatuz... Hauen aurretik taldeak antolatu genituen... Koordinaketa taldea eta besteak, talde bakoitzak arlo baten ardura hartzen zuelarik. Koordinaketa taldeak zuzentzen zuten gutxi-gora behera talde guztien lana.

ISILIK: Bi pausu hauek eman ondoren zer?

IKASLEAK: Talde bakoitza lanean hasten da, (6. 7. eta 8. mailatan). bakoitza bere gaia aztertzen. Eta koordinaketa taldea lan guzti horiek batean lotzen saiatzen da.

ISILIK: Txosten honetan dagoen lana, beraz, hiru mailakoa da. Errespetatzen al zenuten gela?

IKASLEAK: Ez (...?) nahastu egiten ginen. Maixuek erabaki zuten nola egin behar ziren nahasketak.

ISILIK: Behin hasiz gero, zein izan zen maixuen zereginak?

IKASLEAK: Batez ere, genituen zalantzatan lagundu egiten gintuzten eta gero, nolabait ere, lana zuzendu egin dute. Nola egin, gure eskutan zegoen, baina zer egin heurek erabakitzen zuten.

ISILIK: Eta, merezi al du horrelako lan bat hartzeak?

IKASLEAK: Bai, noski, horrela gutxienez eguneroko roiloa puskatzen da eta kalean, bidaiak, bisitak eta lan ezberdin batzuek eginez gustorago zabilta.

ISILIK: Alde txarrik ez al du?



IKASLEAK: Txostena. Zeren talde guztiak beraien lanak amaitu ondoren guri eman zizkiguten eta guk ez genuen dena garaiz egiteko denborarik eta klaseetan normal hasi ondoren klaseko orduz kanpo ibili behar izan genuen dena makinaz pasatzen.

ISILIK: Nola sortu zen erakusketa egitearen ideia?

IKASLEAK: Lehendik erabakita zegoen. Txostena prestaketa talde bat zegoen bezala, erakusketa muntatzeko ere beste talde bat zegoen.

ISILIK: Esperientzi hau izan ondoren, zer iruditzen zaizue, lan gehiago ala gutxiago egiten al da horrela?

IKASLEAK: Lana beste era batetara egiten duzu. Gogo handiagoz eta gustora hasieran behintzat, bukaeran ja... Dena dela, talde batzuren lana besterena baino politagoa zen. Inkesta taldekoak adibidez, egun guztian kalean..., edota argazki taldekoak...

ISILIK: Nola joan dira disziplina kontuak?

IKASLEAK: Ez da inongo oztoporik izan behar zenean gelatik irteteko, alde horretatik askatasun handia izan da. Zarata gehiago izan da, hori bai, baina ez da disziplina arazo berezirik sortu.

ISILIK: Eta beste arloekin? Matematika, Erdara..., zeintzu landu dituzue lan honen barnean?

IKASLEAK: Beno, txostenean ikus daitekeen bezala beste arloetara jo dugu, beti ere bakeroekin zerkusia zuten heinean. Horrela, estadistikak erabili ditugu, grafikoak, historia landu dugu, izadiko azterketak..., gauza asko.

ISILIK: Nolako harrera edo erantzuna izan duzue zuen familietan? Enteratu al dira?

IKASLEAK: Enteratu bai, baina ikastolako beste edozein lan bat bezala...

(Beste batek) Hasieran interesgarria zela esaten zuten, baina gero ikusten zutenean askotan etxeko lanik ez genuela eta batzu moskeatu egiten ziren, atzeratuko ote ginen beldur zirela uste dut...

ISILIK: Eta zuei zer iruditzen zaizue? Denbora alferrik galtzen al da horrelako lanetan hastea? Bakeroei buruz asko ikasiko zenuten baina hori ez da agian oso inportantea, ez?

IKASLEAK: Ez. Gauza asko ikasten da horrela. Esan dizugu gauza asko irteten zirela matematika-koak; aparailu desberdinak erabili ditugu, idazmakina, fotokopiadora, argazki kamara, eta bestela ere ikastolan ikasten diren gauza asko azaldu da lanean zehar. Informazioa jaso eta batzen ere ikasi dugu, taldeak koordinatzen.

ISILIK: Nolako harrera izan zuen erakusketak?

IKASLEAK: Jende asko ibili da. Guraso bakoitzari bidali zitzaion dei bat, egin behar zena adieraziz eta erantzun handia jaso genuen.

ISILIK: Zuek izan duzuen esperientzia honen ondoren, zer esango zenukete datorren urtean egin daitekeen antzeko beste zerbaiti buruz?

IKASLEAK: Egiten dena oso ondo antolatu beharko litzateke arlo guztiak landu ahal izateko, bestela, behar bada arlo batzu batere ikusi gabe joan daiteke denbora. Dena dela, horrela lan egitea uste dut denoi gustatzen zaigula, konturatu gabe, ikasten ari zarela pentsatu gabe, gauza asko geratzen zaigu eta askoz ere atseginagoa da horrela lan egitea, betiko klaseak baino. Gainera gela guztiaren lana denez beste konpromezu maila bat dagoela esango nuke eginbeharraren aurrean.

BAKEROAK

ISILIK: Eta amaitu aurretik azken galdera, Zer iruditu zaizue gaia? Interesgarriena al zen edota, ikusten al duzue interesgarriagorik bazegoenik?

IKASLEAK: Beti dago interesgarriago den zerbait. Hasieran nahiko harriturik geratu ginen. Askok ez genuen ikuste ere horrenbeste lan eman zezakeenik, baina nahiko interesgarria izan da.

IRAKASLEEN ERITZIA

ISILIK: Konta ezazue nondik datorren gai honen plateiamendua eta nola hasten den gauzatzen.

IRAKASLEAK: Ideia Eusko Jaurlaritzak lan berezi horietarako atera zituen subentzio batzuren berri izatetik sortu zen. Horrela okurritu zitzaigun proiektu bat egitearena.

Bakeroena aukeratzea? Ba..., testilak Bergaran betidanik izan duen garrantzia ikusirik... —hasi zait jario ezagunean—. Gure ustez, haurrarendik oso gertu geratzen zen gai bat izan zitekeelako aukeratu genuen «Bakeroak».

Batetik oso erabiliak dituk eta bestetik, informazio pila bat lortzeko erraztasun handiak ikusten genituen, ia dena bertan baitugu. Ez da ahaztu behar gainera, subentzioa jaso ahal izateko gaia kontsumoarekin lotua behar zuela egon, eta alde horretatik mugatuak geundela.

ISILIK: Behin aukeratu ondoren, zuek zer helburu markatu zenioten gaiari?

IRAKASLEAK: Noski, motibazioa ez zen soilik ekonomikoa nahiz eta garbi izan horren bideak erraztu egiten zituela. Pedagogiazko helburuei dagokienez ba gizarte kontsumerista batekin zerkusia duten horiek batetik, eta bestetik aldiz, talde lanaren bidez eguneroko plastatik irten eta, etapa mailako globalizazio batetara iristen saiatu.

Bestetik, hasierako helburua propagandaren sistimak eta eragina aztertzea bazen ere, gero zegoen jende kopurua ikusirik, gaia poliki-poliki zabaltzen joan zen, propaganda gaindituz, produkzio, historia, ingurunea eta abarretara iristen ginelarik. Lana banatzerakoan fijatu ginen piska bat maila bakoitzean programak lantzeko proposatzen zituena puntuetan.

ISILIK: Eta zein izan da hiru mailak batera, edo koordinatuak gutxienez, eramateko arrazoia? Eusko Jaurlaritzaren proiektuak eskatzen al zuen ala zuen erabakia izan zen horrela egitea?

IRAKASLEAK: Ez, ez zegoen inongo esijentziarik alde horretatik. Guri iruditu zitzaigun horrela egiteko aukera eskain zezakeela eta animatu egin ginen.

ISILIK: Zer diozue behar izan duzuen denborari buruz?

IRAKASLEAK: Beno, ohizko klase guztiak geratu ziren hau atera ahal izateko. 6., 7., eta 8. mailako ikasleek taldean lan egiten dute, bakoitzari zegoen puntua landuz. Talde batzuren lana egun osoz informazioa biltzen aritzea izan da. Beste batzuren aldiz, bildutako horren azterketa, eta lanketa. Ondoren hori erakusketa-taldeari pasa behar zioten, honek bere lana bete zezan. Talde ezberdinen artean eman da, gure ustez, hartueman bat.





ISILIK: Antolaketaren zama zuen gainean geratu dela diote ikasleek, orduan, nola baloratzen duzue horrelako lana? Zaila al da? Merezi badu zergatik ez planteiatu baten orde; bi, hiru edo ez dakit zenbat?

IRAKASLEAK: Lehen ez dugu esan eta galdera horrekin gogoratzen zaigu, aipaturiko helburuetatik at bazegoen beste bat ere. Eskola askotan entzuten zen aurrera eramaten zituztela kontsumoarekin zerikusia zuten lanak eta proiektuak, eguneroko eskola-martxa arrunta nolabait hautsiz. Guzti hori horrela, hemen ikastolan pentsatu zen tren hori hartu eta gisa horretako esperimantu batean sartzea. Horren aurrean topatu ditugun zailtasunik handiena zalantzarik gabe esperientzi faltarena izan da.

ISILIK: Ez zarete hala ere geratu esperientzia txiki batekin, ez? Esperientzia monstro batetara jo duzue... Bestalde, merezi al du horrelako esperientzi batek? Zer eta nola aldatzen dute eskola horrelako esperientziak?

IRAKASLEAK: Bai, beno, eskolan gertatzen da; gertatu dena amaitu ondoren betikora itzultzen gara. Baina, errealitatea hau da, eta noizbehinka, gure egonezinak maila batetaraino iristen direnean bihurtzen dugu eskola aktiboagoa, ikasteko beste bide batzuek eskaintzen dizkiegu ikasleei. «Monstro» egiteari buruz berriz, garbi dago esperientzia gehiago izan bagenu beste era batetara moldatu ahal izango ginela. Dena dela, gehien goaren ustez, lehendabizikoa izateko potoloegia izan dela, iruditzen zaigu. Batez ere kontutan hartzen badugu maneiatu ditugun ikasle eta irakasleen kopuruak oso altuak izanik kriston koordinaketa eskatzen zuela.

«Monstro» izate horrek dakarren beste ondorio bat zera da; dena lotu ahal izateko eta nolabaiteko batasun bat eman dadin lanak oso kontrolatua behar duela izan, oso zuzendua.

Irakasleak gehiegi mugatu behar du eta berriz ere ikaslea oso menpean geratzen da askotan. Noski, horrek ez du esan nahi autonomiarik izan ez dutenik. Lehenengo bi egun osoak pasa zituzten jakin eta ezagutu nahi zituzten aldeak eta puntuak («bakeroei» buruz, noski) eta horretarako egon zitezkeen bideak pentsatzen.

Egia da autonomia hori baldintzatua dela eta norbere aurreiritziaren arabera zuzentzen ditugula, ustez komeni den bidera.

Hortik aparte, ez daude ohituta eta zuzentzen ez badituzu, hiru asteren orde urte osoa beharko lukete.

Autonomia batez ere ikerketaren bideen aukeraketari zegokion mailan izan dute, hor bai, eta handia.

ISILIK: Nola ikusi duzue gaiaren barnean disziplinar tekotasuna? Zenbaiteraino globalizatu du gai honek?

IRAKASLEAK: (Eritzi guztiak bat ez zetozenez irakasle batzuren hitzak jasoko ditugu).

(Mikel); Nik baietz esango nuke. Maila batetan behintzat lortu dela.

(Arantxa); Arlo guztiak ukitu direla nik ere baietz uste dut, orain, garbi dago maila bakoitzari dagokion programan datorrena ez dela landu, 8. mailan esate baterako. Matematika landu da agian, baina ez 8. mailakoa, 7. edo BUP-eko izan daiteke une batzutan landu dena.

(Mikel); Nire ustez posible da globalizazio bat egitea, ez behar bada orain dagoen programaketa horretan oinarrituta, baina bai beste programaketa moeta batekin. Noski, horrek zer suposatzen du? Ikaragarriko lana seguru asko.

(Jon); Nere ustez oso globalizazio partziala izan da. Nik neuk globalizazioa ulertzen dut azkenean talde guztiak dena globalizatzea, egin den globalizazioa maila orokorrean eman da. Ekonomia taldekoek jo ta su matematikarekin ihardun dute eta agian ez dute gizartekoek landu dutenaren puntu bat bera ere landu.

(Mikel); Aipatu beharra dago dena dela, erabakita geneuzkan elkarren berri emateak edo «puesta en común» horiek ez ditugula egin denbora falta zela eta, eta agian zuk esaten duzun hori kontzeptuko bide bat izan zitekeen. Ez dugu ahaztu behar gainera, ikasleen interes mailak oso ezberdinak izan direla, batzuek burubelarri sartu diren bezala beste batzuek hamabost egunetako oporraldia izan dutela.

(Iñaki); Nire ustez beste gauza bat ere bada. Ez dago globalizazio posiblerik ez bada ondoren egindakoari buruzko erreflexio bat egiten; eta hori uste dut ez dugula egin. Dena dela, ez genuen hori, behar bada, helburu bezala markatu.

(Damaso); Ebaluaketa bat egiterakoan dena dela, ez ditugu ahaztu behar beste alde positibo batzuek. Eroski-k egin zuen balorazioan lana goraiatu egin zuen. Bere kontsumo ikuspegitik noski, ontzat eta aberasgarritzat jo zuen lana. Entrepresetako jendearen aldetik ere oso erantzun onak jaso genituen, baten batetan ez ezik, eta ez dugu gehienetan inongo oztoporik izan datuak jaso eta prozesuak ikusteko.

ISILIK: Eta aurrerantzean?

IRAKASLEAK: Garbi samar dago esperientzia xumeagotik egin behar ditugula. Gazteenek, 6. mailakoek alegia, perspektiba galdur egin dute. Ez dira gehiegi aklatatu tinglatu guzti honetan zuten tokiaz.

ARANZADI IKASTOLA
San Martin 1
BERGARA

IPARRALDEKO EXPERIENTZIA:

Euskara eta futbola

Iparraldeko ikastola batek duela bi urte egin esperientzia.

Ikastola horretan 6 urtetatik 11 urtetarainoko 70 bat haur zeuden. Horietarik gehienak mutikoak ziren, eta bereziki zaharrenek taldean 19tarik 17 mutikoak ziren.

Haur horietarik gehienek ikastolan baizik ez dute euskaraz hitzegiten, ikastolatik kanpo ingurumen oso ki erdaldun batean bizi baitira, nahiz bakar batzu euskaraz aritzen diren beren etxean.

Gure ikastolako gela barnetan haur guztiak batere problemarik gabe, euskaraz mintzatzen dira. Kanpoak aldiz, ez genezakeen gauza bera esan.

Bestalde, ohartu ginen, haur horietarik asko, ikastolatik kanpo, frantses futbol talde batean ibiltzen zirela astero. Noski, han futbola frantsesez bizi zuten eta ikastolako jokorik garrantzitsuena futbola zuten.

Horiek horrela, euskarari bere lekua berriz emaitako ikastolako jokoetan, futbolaz baliatzea erabaki genuen.

«Euskara eta Futbola» kanpaina xutik ezarri genuen orduan.

Haurrei gutun bat igorri genien hegoaldetik, Real Sociedad-eko zuzendariak bidaltzen zigula sinestaraiz. Hona hemen gutun horretako solasak zein ziren:

«Bai euskarari, bai futbolari kanpaina baten muntatzen ari gara. Horretarako Euskadiko 10 ikastola aukeratu ditugu. Kortabariaren bidez jakin dugu zuen ikastolan ikasle asko dabilela futboleant jolasten, beraz, iparraldearen ordezkariatzat hartzen zaituztegu.

Kanpaina honen hasteko ondoko galdera zerrenda honi euskaraz erantzun behar zaio. Ikastola batek gaizki erantzuten baldin badu joko berehala geratuko da harentzat, ikastola hoberenek jarraituko dute.

Galderak

- Futboleko lege guztiak idatzi behar dituzue.
- Futbol zelai baten marrazkia egin behar duzue izen guztiekin.
- Futbolari bakoitzaren izena bilatu behar duzue bere lekuan dagoelarik zelaiant.
- Euskaraz ari al zarete futboleant? Bai ala ez eta zergatik?

Erantzunak maiatzaren 2rako Real Sociedad-en bulegoetara bidali behar dituzue.

Agian joko honetan gogo onez parte hartuko duzue.

Agurrik beroenak».





Galdera horiei ihardesteko denak, haur eta irakasle, lanean lotu ginen, ikastolako biltzarrak antolatuz, getan maiz aipatuz, etabar... Erantzunak idatzi ondoan, alegia Donostiara bidali genituen eta zenbait egun berantago erantzuna ukan genuen, noski, lehen gutuna bezala, geronek idatzia eta Donostiatik bidalia.

Bigarren gutun horretan haurrei esaten genien beraien lana oso ona zela eta galdetzen genien hiztegi hori buruz ikas zezaten eta futbol partida oso-osoak euskaraz joka zitzen. Horretara helduko zirelarik galdetzen genien idatz diezaiguten berriro, Real Sociedadeko jokalaririk bat etorriko zela tokiaren gainera frogatzeko egia zenez. Gainera irabazten bazuten sari bat ukamen zutela ere idatzi genien.

Bitartean, guraso batzuren bitartez, Realeko zenbait jokalarirekin harremanetan sartu ginen eta gure asmoak esplikatu genizkien.

Beraz, bigarren denboraldi horretan gure lana izan zen futbol partiden antolatzea, hiztegi horren ikas arazteko eta erabilarazteko, denbora berean ikastolako kanpoko giroa euskaratuz.

Zenbait denbora berantago, haurrek, beren buruak prest sentitu zituztelarik, gutun berri bat «igorri genuen Donostiara» eta handik etorri zitzaigun Kortaba-

ria frogan eginaraztera. Froga horien egiteko, haurrek futbol partida bat jokatu zuten haren aintzinean haurretarik batek partida bat bideoan hartuz. Horretarik landa, Kortabarriak ekarritako oroitzapen batzu haurren artean banatu genituen.

Zer ondorio ekarri zuen kanpaina horrek? Lehen hitz teknikoak (adb.: touche) frantsesez erabiltzen zituzten bezala, horren bitartez, gero oso osoki frantsez hizkuntzara lerratuz, ordutik landa, «alboko sake» esateko ohitura hartua bait zuten, beren arteko mintzaira ere euskara izan zen naturalki.

Lan hori atsegin handiz egin zuten, azkenean ondorioak ere eraberean hobeak izan ziren. Haur bati egun guztian «euskaraz mintza zaitez» esateko orde, nahiz eta poliki eta molde desberdinez esan, ohartu ginen ordutik aitzina haurrak beren baitarik ari zirela euskaraz.

Gela barnean euskara nagusi zen molde berean kanpoko eremua ere bereganatu zuen euskarak.

Iparraldeko ikastoletatik

OHARRA: —«ESKOLA» 10. zki-tik jaso.



IPUIN ZAHARRAK AZTERTZEN

1. Definizioa

Ipuinen definizioan sartzea, aski alor labaingarria dela uste dut. Zenbaiten ustez jenero txiki bat besterik ez da izango, agian nobela luzeetara iristeko bitarteko bat. Baina, gaur egun, ipuinari bere nortasun propioa atxikitzen zaio eta askoren eritzitan, honen egitura laburrak ezartzen dizkion zailtasunak, nobelarenak baino larriagoak gerta daitezke. Honek eskatzen duen teknika eta nobelarena desberdinak dira. Gaur egungo narratibak tratamendu desberdina ematen dio bakoitzari.

Beste alde batetatik, nobela jenero bezala, ipuinarena baino geroago sortua da. Badu honen sorrerak zerikusirik inprentaren sorrerarekin, irakurtzeko egina baitzen. Ipuinaren bizitza, ordea, aho literatura arloan galtzen da.

Egia da, bestalde, nobelak, hasiera batetan baduela ipuinarekin bere zorrik, garai haietako zenbait nobela, ipuin batzuren segida baita, Lazarillo de Tormes-en kasua, nahiz nobela horiek hori bakarrik ez izan.

Ipuinaren definizioan, honelako baldintzak sartu beharko lirake: gertakizun bakarra, laburra, teknika eta eragina mantentzea elementu errekkurrenteen bidez, kontakizunaren haria iragana izatea, nahiz oraina ere erabil daitekeen lizentzia gisara. Ikuspegia, orokorrean 1. eta 3. pertsonarenak direlarik. Pertsonaia argumentuaren baitan egotea, ez alderantziz.

2. Ipuin moetak

Aurretik jarritako baldintzak, zentzu zabalean hartu behar dira. Eta orain jartzera goazen zatiketa ere, hala hartu behar da.

Orokorrean, honako zatiketak bidezkoa dirudi: ipuin tradizionalak eta ipuin berriak. Ipuin tradizionalak, ahoz-aho gureganatu zaizkigunak dira. Gerora, zenbait biltzaileri esker, liburutan aurki ditzakegu. Gure biltzaileen artean gogora ditzagun nabarienak: Cerquand, Webster, Vinson, Arcaya, Monteiro, Barbier, Ariztia, Iribarren eta batipat, J.M. Barandiaran eta R. M. Azkue.

Ipuin zaharrak, edonongo herri literaturak bereak ditu, bai gukere geureak. Orokorrean honako zatiketa eman zuen Millerrek: harrigarriak, ohiturenak eta abereenak. Ipuin harrigarriak dira xarma gehienak dutenak, bitxienak. Irudimenezko gertakariak kontatzen dira eta ez dute errealitatearekin zerikusirik. Ohiturenak ez du gertakari miragarriarik izaten eta errealitatearekiko antzekotasuna mantentzen du, nahiz bere barnean herriak atxikitzen dizkion trebezien jabego exajeratua eman protagonistari. Animalienak, hain zuzen, animaliak hartzen ditu protagonistatzat.

Lafittek, honako beste zatiketa hau eskaintzen digu euskal ipuin zaharrak gogoan izanik:

1. Paganoak. Adb.: Basajaunarenak.

2. Kristauak. Adb.: Haur prodigoaren balentriak.
3. Basa-edestikoak. Aspaldiko gertakariak, egiantzeko ez diren xehetasunez beteak. Horien artean errege, gerlari, pilotari eta beste anitzen zori ala gaitzak.
4. Ixtorio-mixtorio batzu, irudimen hutsezkoak. Adib.; Xixtu xarmatuarenak.
5. Eta azkenik, beste guztiak, gehienak jostagarri hutsak.

Ipuin berriak, E.A. Poe geroztik sortuak dira, eta besteak beste, honen ereduia izan delarik eredurik jakinena. Ez ditzagun ahaz halere, kontakizun labur angloxajoniarrak, ipuin hegoamerikarra, kontalari italiarrak, Kafkaren ondorengo korrontea eta beste.

Gaur egun Semiotikak bide egoiki bat eskaintzen digu edin ipuin aztertzeko, geroxeago aipatuko dugun eskemaren arabera. Honek oso gogoan du Vladimir Propp errusiarrak «ipuin harrigarriei» buruz egin zuen azterketa, non ipuin hauen oinarriak bertan aztertzen baitira funtzioak eta pertsonaiak. Proppek, 31 funtzio aztertzen ditu eta hauek beti ordena berdinean azaltzen dira, denak azaldu beharrik ez badute ere. Halere semiotikak eskaintzen duen eskemak, gauzak argiago eta laburrago ematen ditu, honako eskema delarik erabilienetako:

- I. Alor morfosintaktikoa.
- II. Alor semantikoa.
- III. Alor pragmatikoa.

I. Alor morfosintaktikoa.

Alor honek ipuinaren zeinuek beren artean erlazionatzeko era aztertzen du. Perpausak, paragrafoak, beren artean lotura konkretu bat dute «kontzientzia estrukturatzaile» batek ezarria.

Honen barnean aspektu hauek izan behar dira gogoan:

- a) Sekuentziak
- b) Funtzioak
- d) Ekintzak

A) *Sekuentziak*. Ipuinaren makro-estruturak dira, hots, protagonistak beste pertsonaiekin batera, leku eta denbora konkretu batetan egiten duen ekintza.

Sekuentzia hauek izan daitezke elementalak edo ekintza bakarrekoak. Konplexuak, sekuentzia elemental zenbaitez osotua, hauek txandatuaz, txertatuaz edo kateatuaz egin daitezkeelarik.

B. Ondoren, funtzioak finkatu behar dira. Funtzioen honako definizioa eskaintzen du V. Proppek: «Narrazioaren desarroilo osoan esanahiaren ikuspegitik zerikusia duen pertsonai baten ekintza». Funtzioak izan daitezke:

- Distribuzionalak. Ekintzari dagozkionak eta hauek dira;
 - Kardinalak. Sekuentzia bat ireki, desarroilatu eta hertsiki egiten dutenak. Funtzio nagusienak dira.
 - Katalisiak. Hutsarteak betetzea da helburua. Garrantzia gutxi dute. Osagarriak dira.
- Integratzaileak. Esanahiari dagozkionak. Horien artean;
 - Zantzuak. Izakera, sentipena, filosofia markatzen dute eta kontakizuna girotzen dute.
 - Informazioak. Espazioan eta denboran kokatzeko erabiltzen dira.

D. Ekintzak aztertzean, ekintzaileak aztertu behar dira. Ekintzaileak aztertzean nahiago izaten da gaur egun honako kontzeptu generikoa erabili: aktanteak, ekintzen egileak, alegia. Ekintzek dute garrantzia ez ekintzaileek.


Ekintzen aktanteak, orokorrean, honako kategorietan banatzen dira:

Subjektoa - objektoa, desira helburuz lotuta daude.

Subjektoaren *laguntzaileak* eta *aurkariak*, partizipazio erlazioan azaltzen dira.

Igorlea eta *hartzzailea*, komunikazio erlazioz lotuta.

Delako aktanteak, bizidunak edo bizigabeak izan daitezke. Gogora dezagun, ez pertsonaiak, baizik eta ekintzek dutela garrantzia.



II. Alor semantikoa

Bi alderdi bereziko ditugu:

- a. Alor formala. Zer dioen alorra, konotapen arloa alde batetara utziaz.
- b. Alor sustantziala. Zer esan nahi duen, funtsezko zentzuak aurkitu behar dira.
- d. Alor sinbolikoa. Zer alusio erabiltzen duen. Bere konotapena.

Irakurleak irakurketa baten aurrean jarrera berezi bat hartzen du, bai gizarteari buruz, baita ideiei buruz ere. Idazleak bere ideiak jaultzitzen baditu ere, irakurleak, edo kritikoak bere ikuspegitik begiratzen ditu. Era honetan gizartean ikuspegi anitza azalduko da, bai errealitatea konkretuari buruz, bai fikzioa berari buruz, bai mundu ikuspegiari buruz.

III. Alor pragmatikoa (erretorikoa).

Alor honetan errekurtsio teknikoak aztertzen dira. Honako hauek batipat: autoreak obrarekin eta obrak irakurlearekiko dituen harremanak. Alor teknikoak aztertu behar dira, hauek hiru puntu hauetara muga daitezkeelarik:

a) Denbora. Denborari ematen zaion tratamendua. Honen luzera, laburra, bere atzera aurrera, hurrenkeria, iraupena. Aspaldiko literaturan denbora kronologikoa nagusi zen, orain alderantziz, denboraren erabilerak anitzagoa da.

b) Ikuspuntua. Kontakizunak ikuspegi konkretu bat darama bere barnean, subjektiboa, objektiboa, barne-rik azaldua, kanpotik. Kontalaria ager daiteke orojakitun bezala, edo fikziozko pertsonaia baten barnean nahasia egon, lehen pertsonan azal daiteke, hirugarren pertsonan.

d) Modua. Alor honetan, erabiliko estiloaz arduratuko gara. Ez da, noski, estilo berdina izango kontakizun arrunt bat edo poetiko batetan. Hizkuntzak nolako zehaztasunez ebokatzen duen bere erreferentea.

Orokorrean bereiz ditzakegu:

- Estilo zuzena, zehatzena, diskurtsoa inongo aldaketarik gabe ematen delarik.
- Zehar estiloa. Edukia emanik ere, kontalariaren ahotsan ezartzen da.
- Eta bien arteko zerbait den, zehar estilo librea. Zehar estiloaren itxura emanik ere, estilo zuzenaren ñabardurak kontserbatzen dira.
- Zenbait alor estilistiko. Narrazioan azaltzen diren errekurtsio estilistikoak azter daitezke orain, hizkuntza erabiltzeko modua.

IV. *Balorazio pertsonala*. Azken zatia, eritzi kritikoa izango litzateke. Ondorioak atera behar dira. Aurretik zehazten joan garen atalen arteko oreka eta ekilibrioa. Bata bestearen osagarri izan behar delako. Alde batetik, testuak duen kalitate literarioa begiratuaz eta beste aldetik, ariketa hau guztiz eginkizun bikaina izango da ikaslearen kriterioa desarroilatzeke.

Guzti hau, ondoren doan eske-man labor daiteke:



0. Inguratze lana.

I. Alor morfosintaktikoa.

Sekuentziak:
elementalak konplexuak:

- txandatuaz
- txertatuaz
- kateatuaz

FUNTZIOAK:

Distribuzionalak: zantzuak
informazioak.

EKINTZAK:

Aktanteak:

- subjektoa -objektoa
- subjektoaren laguntzaileak.
- subjektoaren aurkariak.
- objektoaren igorlea-hartzailea.

II. Alor semantikoa.

Alor formala.

Alor sustantziala.

Alor sinbolikoa.

III. Alor pragmatikoa

(erretorikoa):

- Denbora
- Ikuspuntua.
- Modua.

Beste errekurtsio estilistikoak.

IV. Balorazio pertsonala.



Lan honek luze antza hartzeko itxura baldin badu ere, lehen teoriarik esandako pausoak eman beharrean aurkitzen gara. Har dezagun analisi-rako aurretik doan ipuin harrigarria: «Lau anaia umezurtzak».

LAU ANAIA UMERZURTZAK

Munduan beste asko bezala, lau anaia umerzurtz geratu ziren. Aitak, hil zenean, ogi bat baino ez zien utzi lauri.

Konturatu ziren beren ogia irabaztera joan behar zutela.

Irten beren etxetik eta bidegurutze batetara iritsi zirenean, elkarri esan zioten:

—Ogi hau lau zati egin eta hementxe banatu behar gaituk lau lekutara: hemendik zarpigarren urtean gaurko egunez ordubietarako honaxe etorri behar diagu.

Irten ziren bakoitza bere bidetik. Batak astronomo bat topatu zuen.

—Nora hator, mutil? —galdetu zion astronomoak.

—Ba, lau anaia izan gara eta umerzurtz geraturik, aitak ogi bat baino ez zigun utzi, eta hementxe gabiltza, bakoitza geure ogia bilatzen.

—Ni astronomoa nauk eta nire lana gustatzen bazaik, jaten emango diat.

Bai, gustatzen zait.

Eta hala, berarekin geratu zen.

Bigarrenak, jostun bat topatu zuen.

—Nora zoaz, umetxo? —galdetu zion jostunak.

—Ba, lau anaia gara, eta aita eta ama hil egin zaizkigu, eta neure ogia irabaztera.

—Neuk emango dizut ogia eta langintza erakutsi, gustatzen bazaizu.

—Bai, gustatzen zait.

Eta hura ere bertan gelditu zen.

Hirugarrenak, ehiztari bat topatu zuen.

—Nora zoaz, semetxo? —galdetu zion ehiztariak.

—Ba, lau anaia gara, umezurtz geratu gara eta neure ogia irabaztera noa.

—Neuk emango dizut ogia, neure langintza ikasi nahi baduzu.

—Bai, gustatzen zait.

Eta han gelditu zen berarekin.

Laugarrenak, lapur bat topatu zuen bidean.

—Nora zoaz, semetxo? —galdetu zion.

—Ni neure ogia irabaztera, aita eta ama hil egin zaizkit eta.

—Ba, zeuk nahi baduzu, nik neuk daukadan langintza erakutsiko dizut.

—Zer langintza duzu bada?

—Ni lapurra naiz, eta nik lapurretan erakutsiko dizut.

—Horixe ez zait bada gustatzen. Neure aitak eta amak hori ohitura txarra zela esaten zidaten eta.

—Nik erakutsi arren, zeuk nahi baduzu ostuko duzu, eta bestela ez. Ikasiz gero, jaberik ez duten gauzak ostu ditzakezu.

—Horrela bada orduan, ikasi egingo dut.

Hala, bertan gelditu zen.

Zarpigarren urtean, laurak batu dira esandako lekuan. Eta han hasten dira beren gauzak esaten.

Batak esan zion besteari:

—Hik zer egin duk?

—Ba nik astronomo ikasi. Eta ugazabak tresna bat eman zidak, neuk nahi dudana guztiak ikusteko.

—Eta hik zer egin duk bada?

—Nik josten ikasi diat, eta nire ugazabak edozer gauza josten duen orratz bat eman zidak.

—Hik zer egin duk?



—Nik ehizan ikasi diat, eta ugazabak, apuntatutako guztia hiltzen duen eskopeta bat eman zidak.

—Eta hik? —galdetu zioten laugarrenari.

—Ba nirea esan ere ezin da egin.

—Zer daukake bada esateko, lapur izanda ere? —esan zion astronomoak.

—Ba mutil, horixe.

—Ba orain gauza bat egin behar diagu. Erregeri alaba ostu ziok herensuge batek, eta erregek esan dik alaba hura ekartzen duena errege izango dela. Nik bazekiat non dagoen.

—Nik non dagoen baneki, ostuko nitek —dio lapurrak.

—Ba nik herensugea ikusten badiat, hilgo diat —esan zuen ehiztariak.

—Anaia haiz hi ere bai, eta gurekin etor hadi, aspaldian ez gaituk elkarrekin egon eta —esan zioten jostunari.

Gero erregerengana joan ziren.

Eta astronomoak esan zion erregeri berak bazekiela haren alaba non zegoen; baina itsasoz joan behar zela eta untzi bat beharko zutela bera ekartzeko.

Erregek, beñaiak nahi zuten untzi bat eman zien. Joan ziren untzi horretan eta...

Herensugea zegoen inguruko itsasbazterrera iritsi zirenean, astronomoak esan zion lapurrari:

—Han zegok, eta ostu ezak, gu hemen egongo gaituk eta.

Joan zen lapur hori isil-isilik, eta ostu zion herensugeari erregeren alaba hori.

Untzira sartu zenaz batera, iratzarri zen herensugea eta untzi horretarantz etorri zen; baina untzi ondora etorri zenerako, ehiztariak tiroz hil zuen. Hiltzerakoan eman zion astinduaz untzia zulatu zuen.

Orduan jostunak, untzi hori hondoratzeraz zihoala ikusi zuenean, orratza hartu eta josi egin zuen.

Eraman dute erregerengana alaba hori.

Astronomoak dio erregeri:

—Ba orain nik ezkondu beharko dut zeure alabarekin, neuk topatu dut eta.

Lapurrak dio:

—Neuk ezkondu behar diat, neuk ostu nioan herensugeari eta.

Ehiztariak dio:

—Eta nik herensugea hil ez banu? Denok hark jan. Neuk ezkondu behar diat.

—Eta nik neure orratz honetaz untzia josi ez banu, denok ito egingo ginen. Neuk ezkondu behar diat.

Errege inori arrazoirik eman ezinda geratu zen.

Gero bakoitzari diru pilo handi bana eman zion.



0. *Inguratze lana.*

Parte honetan, azterketa berarekin zerikusi zuzenik ez duten zenbait zertzelada begiratuko ditugu.

Egilearen arloari gagozkiolarik, herri literaturari dagokion bezala, autore anonimoa dela esan behar da, alegia, inor ez da egile eta eraberean, autore anitz bat dago, hain zuzen, ahoz-ahoz guregana iritsi erazi digun herri kontalaria. Hark ahoz-ahoko eragin horretan modelatu du, guregana iritsi den arte eta biltzaileak, Joxe Migel Barandiaran kasu honetan, jaso duen arte.

Ipuin moietari gagozkiolarik, ipuin harrigarrien artean koka dezakegu, kontakizun honek duen ez-realtasunari bagagozkio. Bestalde, botere magikoak ere bertan azaltzen dira.

I. *Alderdi morfosintaktikoa.*

Horra ipuin honen zatiketa sekuentziala.

S.1. Lau anaia umezurtz eta bizibiderik gabe geratzen direlarik, ogibidea ikastera abiatzen dira.

Ogibidea ikasi ondoren, Erregeren alaba libratzen erabiltzen dute, tartean diren gertakariak direla medioa.

Ondorioz, egibide bikaina lortzen dute, Erregek ordainez ematen dien sariagatik.

Sekuentzia honek ipuin osoa hartuko luke.

Funtzioak

Sekuentzia hiru funtzio kardinalak osatua dago: hasierako egoera bat ematen da, desarroilo bat gertatzen da eta ondoren bukaera bat.

S 1:

F1. «Munduan beste asko bezala... hala bertan gelditu zen» arte.

Lau anaiek ogibiderik ez dutenez gero, ikastea erabaki eta ikasi ere egiten dute.

IPUIN ZAHARRAK



F2. «Zazpigarren urtean... josi egin zuen» arte. Funtzio honetan desarroilatzen da ipuina. Lau anaiak beren trebeziak erabiltzen dituzte Erregeren alaba libratzen eta libratu ere egiten dute.

F3. «Eraman dute... bukaera arte.

Beren lanaren ordaina lortzen dute, ondorioz, hasieratik nahi zuten ogibidea eskuratzen dute.

Ekintzak

Ekintzaren alorrari gagozkiolarik, orokorrean azter ditzagun akanteak, edo beste hitzetan, ekintzen egileak.

Ipuin honen egile «Sujektoak» lau anaiak dira. Hau kostante bat da ipuin guztian zehar.

«Objektoa» edo subjektoek nahi dutena bizibide bat lortzea da, alegia, etorkizuna ziurtatzea. Baina objektoa zehatzagoa egiten da ipuina aurrera doan neurrian, esate batetarako, objektu hori, zehazki, gerora, Erregeren alaba libratzea da, eta azken azkenean saria lortzea.

Subjektoek badituzte beren laguntzaileak, alegia, bakoitzari bere lana egiteko botere magikoaren emaileak: astronomoa, jostuna, ehiztaria eta lapurra. Azkenik Errege ere laguntzaile gertatuko da.

Igorlea, ipuin barneko kontalaria da, hau hirugarren pertsonan zuzentzen delarik igorlearengana.

Hartzailea, orokorrean kontsidera daiteke irakurle arrunta, ipuin honen helburu nagusia tartegune atsegin bat pasatzea besterik ez baita.

II. *Alor semantikoa.*

Arlo honi gagozkiolarik, argumentuaren haria aski sinplea da, alegia, lau anaiak, umezurtz geratu eta etorkizun garbirik ez dutelarik, haren bila joan eta lortu ere egiten dute.

Baina sakonagora joaz, ipuin honen barne esanahian aurki ditzakegu zenbait balore.

«Sujektoek». Lau anaiek etorkizuna lortu nahi dute, hartarako ahalgin pertsonala bidez jarriaz. Erregeren partetik, haren emankortasuna azpimarra daiteke, eta haren zuhurtzia lau anaiak kontentatzeko.

III. *Alor pragmatikoa.*

Ipuin honetan ez du denborak garrantzia berezirik. Ipuin harrigarri bat denez gero, ez du egiantzarik, botere magikoak azaltzen dira, giza posibilitateetatik gain daudenak.

Ikuspuntu objektiboa da, 3. pertsonan egiten da, balorapen pertsonalik gabe, kontakizuna bere horretan egina da, balorazio pertsonalik gabe.

Ipuin honetan, gisa den bezala ipuin zaharretan, kontakizuna elkarrizketarekin nahasten da, bizitasun berezia duelarik. Elkarrizketak betetzen du ipuinaren zatirik handiena eta garrantzitsuena. Bien artean ez dago loturazko hitz edo perpausarik, zuzenki egiten da, ekonomiaz baliaturik.

Beste balore literarioak begiratu, bistan dago hizkuntza xumea dela, apaingarririk gabea, kontakizun eta elkarrizketaren freskutsuna nabaria da, adjektibo urri dagoelarik.

Lehen aipatutako ekonomia zenbait elisiotan ere nabari da, horrela monotomia eta aditzaren errepikatzea urrunduz «irten bere etxetik

eta...» «Eta, hala, berarekin geratu zen...».

Ohar perpausa laburrekiko, iustapoziorako eta koordinatuetara duen joera.

Konposatu txertatuak ere badira, haien artean, iragan gertakizunari dagokionez, denborazkoak dira nagusi. Halere ez dago txertatu soberarik.

Sarrera tipikoa da, hortarako formula ezagunetako bat erabiliaz «Munduan beste asko bezala...» eta aditza kontakizunean iragana da, elkarrizketan oraina orokorrean.

Beste errekurtsio zenbait ere azter daiteke, oraingoz honekin aski delakoan uzten dugularik.

IV. *Balorazio pertsonala.*

Ondorioz esan dezagun, herri ipuinek duten zapore eta bizitasuna duela ipuin honek, argumentuaren haria biziro desarroilatua dagoela, botere magikoen erabilerak ukitu xarmant bat ematen diolarik, ondorioz ipuin harrigarrien artean kokatzen dugu.

Uste dugu, ipuin hauek gauza guztiz bitxiak direla, eta ondorioz arrunt erabilgarriak bai euskalduntzen prozesuan, bai mintza praktika arloan.

Aurreko azterketa mintzagai ordenatu bat dateke, bakoitzak nahia-go duen arloa azpimarra dezakeelarik. Arlo hau, desarroilatzeke asmoa baldin banuen ere, lantxo hau lantzar gerta ez dadin, gera bedi bere horretan.

G. E.



OHARRA

Donostialdeko ikastetxeetako zuzendariei oharra:

Donostiako LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTU POLITEKNIKO honetan «D» ereduari irakasten bi urte daramatzagu.

Institutu honetan Lanbide Hezkuntza mailako ikasketak Metalean —Makina Erremintan, Elektrizitate— Elektronikan, Marrazketan eta Zurgintzan euskaraz egin ahal izateko aukera dagoela, alegia.

Ikastetxe hau publikoa edo ofiziala da, Eusko Jaurlaritzaren bai-koa.

Egiteko honen helburua, gure inguruko ikasle, guraso eta herriki-de orori, ikasketak egiteko dauzkaten aukeren berri ematea litzateke.

Ohartxo honen bidez doakizun informazioa osatu nahi izanez gero, zuzendaritza honekin harremanetan jar zaitezela eskertuko genizuke.

Sinadura: Francisco Javier Jiménez

(LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTU POLITEKNIKOKO
ZUZENDARIA)

IDAZTEN KOLABORATU NAHI DUTENAK

IZENA

HELBIDEA

TEL. HERRIA

GAIA

NOIZKO



KUBAN HEZKETA LEKURIK GORENEAN

Kuba, mutur batetik hasi eta besteraino eskola handi batetan bilakatu den herria dugu, hiru lagunetik batek ikasi egiten du eta hezketa, garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura dagoenez, guztiek dute eskubide eta guztien eginkizuna da berau.

Hezkuntza Ministeritzak duela gutxi argitaratu zituen datuetan ikusi ahal izan genuenez oso adierazgarriak ziren; 3.300.000 ikasle daude irakaskuntza maila desberdinetan, 500.000 gaztek gutxi gora behera beka eta laguntzak jasotzen dituzte eta ia 233.000 irakasle omen daude goi-mailako hezketa irakasle aparten. Beste xehetasun bat ere ematen ziguten, hots, 1983. urtean lehen eta bigarren mailako graduatu tituloa lortu zutenek, beraien ikasketak jarraitzeko aukera garantizatu ahal izan zitzaizkela, alegia.

Beste informazio batzuek diotenez gaur egun, 4.000 irakasle kubaniar eta hezkuntza-tekniko bezala omen dabilta beraien lanetan Afrika, Asia eta Latinameriketako 20 herrialdeetan zehar.

Gaspar Jorge Garcia Gallo pedagogo kubaniar famatuak eta 70eko hamarkadaren inguruan, zioenez, Kuban sakoneko iraultza ematen ari omen zen hezketa arloan bereziki —martxan doan iraultza, esaten zuen— pedagogiko kontzeptu eta kategoria tradizionalak bere sakontasunean eta arlo guztiak iraultzen dituen prozesu bat; heziketaren izaeraz, heziketaz pentsaraztea eta eza-gutzea, aktuatzea eta heziketazko errealitatea alda araztea, guztia, ari da aztertzen gaur egun Kuban; eginkizun sozial eta zabal honetako prozesu etengabea, orokorra eta masibo batetan bilakatuz, era berean bere helburuak giza-kontzientzia berri baten garapenera eta gizakiaren era askotariko formaziora, hots, interes kolektibo handienak eta nortasunaren jolas libreak batzen diren bideratzen dituelarik.

Aldaketa honek berehala eman zituen bere fruituak eta urte gutxi barru, Kubak haur eta gazte guztien eskolarizazioarekin batera, irakaskuntza ertainean matrikulaketa izugarriaz gainera, langilegoaren superazio kulturala eta tekniko lortu zuen. Horretaz aparte aipatu beharrekoa da goi-mailako irakaskuntzaren arrakasta; adib., 1980ean 20.000 ikasle beraien tituloak lortu ahal izan zituzten; 1959ko unibertsital matrikulazio osoaren kopurua gaitzen zuelarik.

Analfabetismoa eta oinarrizko heziketaren unibertsalizazioa giza arazotzat ez hartzea lortu zuten, lehenengo aldiz Latinameriketako herri batetako historian.

Halaz ere, behin helburu horiek gaitzen gero, abiapuntu berri batzutan bilakatu ziren eta, 1972 urtez gero, hezitzaile eta kubar agintariek Heziketaren Sistima Nazionaleko Hobakuntzazko Plana errealitate bilakatzen ahalegindu ziren besteak beste.

Aipatu egitarau honek, irakasle-hezitzailearen prozesua, egun erakitzen ari den gizartearen eta zientzia eta teknikaren aurrerakuntz azkarrak bereizten den etaparen eskakizunen arabera egokitu zuen. Erabateko iraultza inplikatu zuten batez ere, ikasketa programa eta planetan, testu-liburuetan, eta nola ez, irakaslegoaren formazioan; Heziketaren politeknizazioaren arabera transformazio sakona eta pedagogia zientifikoan oinarritua bait zegoen, hitz gutxitan esateko, gai kopururik gehiena ahalik eta denbora laburrenean eta espezializazio eta jakintzen zabaltasunaren konbinaketa egokian zetzan egitarau hori.


Eskola bizitzari lotua

Kuban Heziketaren helburua zera da; belaunaldi berriak munduaren ikuspuntu zientifikoan hezitzea,

gizakiaren kapazitate intelektual, fisikoa eta izpiritualak bere osotasunean garatzea eta sentimentu eta gustu estetikoak sortaraztea. Bere helbururik nagusia aldiz, armonikoki garatua eta ikuspegi zabaleko nortasuna duen pertsona egitea, sozialismoan modu erabakior batetan parte hartuko duena, alegia.

Hortik, irakaskuntzaren maila guztietan hezketa intelektual, zientifiko-teknikoa eta politiko-ideologikoa lotzea, fisika, etika, estetika, langileria eta patriotikoarekin.

Hasierako mailetatik hasi eta goi-mailetarainoko hezketa printzipio honetan oinarritzen da: Ikasketa, lanarekin konbinatzea, alegia, honek, oinarrizko bigarren mailako eskolatan eta preunibertsitarioak, so-roan lan egitera dakarrelarik. Hau bait da, eskola bizitzarekin eta teoria, ekoizpen edo produkzioarekin lotuko duena, hain zuzen.





Orain duela 30 urte, uztailearen 26eko gau hartan Fidel Kastro eta bere gudariak Monkada kuartela eraso zuteneko egoera Kuban hezketa arloan behintzat egun Latinamerikako herrietan dagoenaren berdintsua zen, hots, 45 miloe analfabeto dituen kontinentea. Oinarrizko irakaskuntzako lehen mailako ikasketak amaitu ez dituzten 25 urtetatik gorako 60 miloe pertsona heldu ditu eta hezitzeke posibilitaterik gabeko 30 miloe haur.

1953an miloe bat haur zentsuriko haur-populaziotik, apenas erdiak joaten ziren eskoletara, ondorioz, 10.000 irakasle titulatu lanik gabe aurkitzen zirelarik.

Analfabetismoa % 23'6koa zen 10 urtetik gorakoen artean eta sei urtetik gorakoek aldiz, ez zuten inolako mailarik aprobata.

1958an egoera kritikoa eta oso larria zen. Miloe bat analfabeto osooak zeuden, beste miloe bat erdi-analfabetoak eta 600.000 haur eskolatu gabetanik eta bien bitartean 10.000 irakasle lanik gabe jarraitzen zirelarik.

Monkadako gertaeren ondoko juizioan Fidelek hezketa arazoak aipatu zuen. Lider iraultzailearen asmoetan zegoen irakaskuntzaren soluzioa, zeinak bere autodefentsan eginiko hitzaldian («Historiak absolutuko nau») iraultza egingo zen lehendabiziko legetan ezartzen bait zuen irakaskuntzaren erreforma osoa; herri zoriontsuago batetan biziko diren belaunaldien prestakuntzarako kondizioak ezarriko zituen erreforma, alegia.

1959an, Iraultza garaile irten zen urtean, Monkadako legeak egia bilakatzen hasi ziren; 10.000 gela berri sortu ziren, etsaien 69 kuartel, eskoletan bilakatu eta 40.000 haur sartu ziren bertan; Kubako kapitalismoaren historian baino nekazal-irakasleak bikoiztu egin ziren orokorki, eta heziketa demokratikotasuna eta dohantasa ezarri zen.

1961ean eta hilabete gutxitan 700.000 pertsonak ikasi ahal izan zuten irakurtzen eta idazten Alfabetatze kanpainari esker eta helduen heziketarako programak hasi ziren bekarioen plan orokorrarekin batera. Ondorengo urtean unibertsital

irakaskuntzaren berregituraketa egin zen, ondorioz, inbestigazio zientifikoaren garapena, espezializazio gehiagoren eta Instituto Pedagogikoen sorketarekin batera, herriaren garapenaren beharrei erantzun diezaiola goi-mailako matrikulak, egin zuen.

Horrela, gaur arte iristen den lan izugarri baten oinarriak ezarri ziren, hezketa erabat transformatu delarik Kuban, etengabeko arrakastak lortzen ari direlarik, Latinamerikako herrien buru dagoelarik.

Gaur egun Hezkuntza Sistema Nazionala azpisistema multzo batez osaturik dago (eskolaurrea; orokorra; politekniko eta lanbide hezibidea; espeziala, tekniko eta profesionala; goimailakoa, irakasle pedagogikoen formazio eta hobakuntzarako; eta irakaskuntzako maila eta moeta guztietan integratu eta elkartuak dauden helduena).

1959an 83 miloe peso eman zitzaizkion hezkuntzari. Aurtengo aurrekontuetan aldiz, 2.158'3 miloe eskaini zaizkio hezkuntza eta osasun publikoari.

Irakaskuntzako gastu guztiak bai arruntak, bai unibertsitatekoak (eskola-erakuntzak, ekipamenduak...) nazioko errekursoetatik ordaintzen dira. Normalki, ekoizpen nazional gordinetik % 10 eskaintzen zaio Hezkuntzari.

Irakaslea oinarrizko zutabea

Kubako irakaskuntzan izugarriko inportantzia du hezketa extraeskolarrak edo eskolatik kanpo jasotzen den irakasketak; eskolak bere kargu duen lana (irakasle-hezitzaile) osatu eta aberastu egiten baitu.

Ekintzok eskola barnean ala kanpoan egiten dituzte irakasleekin (interes-guneak, aukerazko klaseak, ikasle-monitoreen mogimendua) edota, erakunde estatalekin (gazte eta eskola-joku deportiboak, jaialdiak) eta politiko, sozial eta herri erakundeekin (lehiaketa, txapelketa eta kultur ekintzak) antolatzen dituztenak.

Ekintzok azpisistema bezala lehen mailako eskolan hasten dira desarroilatzen, gero eta sakonago ertaineko eta goimailakoa eskoletan landuz. Beronen antolaketak aisia edo denbora librearen aprobetxamendu

KUBAN HEZKETA

egoki bat eskaintzen die ikasleei, laburtuz, hezitzaileen prestakuntza polifazetikoarekiko laguntza garrantzitsu bat.

Irakasle-hezitzaile prozesu batean, oinarrizkoena irakaslea da. Ez dago heziketarik irakaslerik gabe. Horretxegatik ematen dio berebiziko inportantzia Kubako Gobernuak pertsonal pedagogikoaren heziketa eta prestakuntzari.

Duela gutxiko datuek adierazten digutenez 154.600 ikasle eta lanean diharduten irakasleak, karrerak ikasten edota, profesionalki prestatzen ari dira eskola pedagogikoetan, lehen mailako irakasleen eskoletan, haurtzaindegietako hezitzaile gisa; Goi-mailako Instituto Pedagogikoan eta Hezketa Hobakuntzaren Institutoak antolatutako ikastaldietan, besteak beste.

Herriaren garapenaren dinamika propioak eta maila eta moeta guztietako heziketan ematen zen matrikula hazkorrak behartu zituen titulorik gabeko irakasleak lanean jartzera, irakasten zuten bitartean profesionalki eta etengabeki prestatzen zihozelarik. Horrela jokatzera aurkitzen ziren bestela, milaka haur eta gazte Hezkuntza Sistima Nazionaltik kanpo geratzeko arriskutan aurkitzen bait ziren.

Derrigorrezkoa zen deia. 1959an hiru mila gazte hasi ziren borondatezko mendi-irakasle bezala lanean. Geroxeago, erantzuna ere parekoa izan zen: lehen mailako irakaskuntzan borondatezko irakasle herrikoiak izan ziren; langile asko helduen heziketarako irakasleetan bilakatu ziren, eta «M. Ascunce Domelech» Destakamendu Pedagogikoko ikasleak ertaineko irakaskuntzan hasi ziren lanean.

1976ean irakasle eskolen sare bakar bat eratu zen eta handik urtebetera, aipaturiko irakasle eskoletan, Hobakuntza Planetik ateratako ikasketen egitarau berriak aplikatu ziren. Lehen mailako irakasle eskoletan eta hezketa ertainerako irakasleak prestatzen zituzten ikastetxeetan sarrera maila, bederatzi eta hamabigarren graduak aprobaztera igo zen eta oinarrizko heziketaren eta hezkuntzaren lizentziaturak sortu ziren. Gaur egungo oinarrizko mailetan lanean diharduten irakasle guztiak dira titulo dutenak eta ertaineko irakaskuntzako irakaslegoaren titulo ateratzearen ahaleginetan ari dira.

Hezkuntza internazionalista

Hain urrun dagoen 1981ean, —Kubako historian, Iraultza serio-ski mehatxaturik aurkitzen zen barne eta kanpoko erreakzioz eta Giron Hondartzan etsaiak indarrez sartu nahiari aurre egiten ari zirenean— Fidel Kastro Komandante-buruak, aldi hartan eramaten ari zen Alfabetatze Kanpaina aztertu eta begiak etorkizunean ipini ondoren, esperientzia hori beste herrietara heleraztearen posibilitateaz mintzo zen, eta Kubaren jarreraz honela zioen; «inoiz Kubari alfabetatzaile brigadak beste herrietarako eskatuz gero, bidaltzeko prest egonen litzatekeela». Eta jarraitzen zuen esanez; «gu segur gara egun hori iritxiko dela, Ameriketara bezala Afrikan edota Asian».

Kubaniar kooperazio internazionalista, irakaskuntza arloan hasi zen 1973an, espainierazko eta pedagogi alorreko asesore ziren 40 irakasle Ekuator Gineara iritxi eta 1975 arte egon zirenean. Urte berean 12 kolaboratzaile Angolara joan ziren angolarrek Hegoafrikarrak erasotzen zuten une horretan, Kabindako ikastetxe politeknikoetan lanean ihardun zirelarik.

Bi urte geroago heziketa mailako kolaborazioaren gehikuntza nabaria zen eta 1978an baziren jadanik, 900 irakasle eta tekniko kubaniarrak atzerrian. 1980ean 9 Herri baliatzen ziren laguntza horretaz. Gaur egun 20tik gora dira, lehen aipatu bezala, eta une berean, 10 herrialdeetako 11.000 ikasle ari dira ikasten Kuban oinarrizko edota ertaineko irakaskuntzan eta beste 70etako 1.000 gaztek aldiz, ikasten dute Kubako Unibertsitateetan.

Kubaniar irakasle internazionalista talde ugari horretan Augusto César Sandino deituriko Pedagogiazko Talde Internazionalista eta Ernesto Che Guevara Pedagogiazko Destakamentu Internazionalistarekin batera Frank Pais -eko Lehen mailako Irakasleen Taldeen partaideak aipatu beharko genituzke, guzti hauek, Nikaraguako eta Angolako belaunaldi berrien sortzaile bait dira; lan ho-






rren ordain-saritzat askotan iparra-meriketako inperialismoaren irainak eta ofentsak jasan behar izan dituzte-larik.

Jose Marti, Kubako Heroe Na-zionalak esan zuenez, jaiotzen den gizaki orok du hezketarako eskubi-dea, ondoren, besteeiko hez-kuntzan parte hartu behar duelarik.

Eta lanbide horretan ari zirela-rik, Nikaraguan erahil zituzten lau irakasle kubaniar Somozaren aldeko goardia ohiak: Fko. Concepción, Pe-dro Pablo Ribera, Bárbaro Rodri-guez eta Aguedo Morales. Gazteak ziren eta ilusioz beteriko bizitza oso bat zeukaten aurrera begira. Eta atzerrian hiltzean, etsenplu eder bat eskaini zuten. Orduan, milaka ira-kasle kubaniar prestatu ziren hildako horien lekua betetzera, maila guztie-tan gainera. Une hartako eta etorki-zuneko lanak ziren, adib.; eskolaren eraginkortasun handiago baten lor-pena; heziketa-lanaren maila ho-betzea; biharko eguneko teknikari eta profesionalen prestakuntza osoa-go bat; lan guzti horiek batetara la-bur bilduz, heziketa eta irakas-kuntzaren kalitate hobea-go bat lortzea, alegia.



Itzulpena:
IRAKASLE ELKARTEA



LEKURIK GORENEAN

Kaixo Memo;

A, ze berotasun goxoa! Pena da San Pablon eguzki-energia ez erabiltzea, baina jakina, mahatsondoari sagarrak eskatzea bezalaxe da hori!, eskualde honek dituen aberastasunak inoiz ez direlako erabiltzen herriaren onerako.

Oinpean petroleoa darabilgu eta bi hilabete badira gaez genuen argipittina ere kendu digutela. Ibaiak urrea bezain distiratsu eta ur zikinak kaleetan zehar; soroak bizitasunez beterik eta jendea osasun-lanpostu ezaz hiltzorian.

Lehengo egun batez, bi baserritar hilik ekarri zituzten, belar zamak bailiren, aberean zintzilik, baina jendeak ez du ezer aipatu nahi. Ejertzitoak harturik dauka herria eta mendirako gudaritalde gehiago ekarri dituzte.

Pelaoei esker jakin ahal izan nuen, hauek egunsentirako kalean daudenez, dena ikusi omen zuten. Ekintza horren aurrean beraien familien jarrerak kokatzen zihozten heuren komentarioetan.

Eskualde honetako egoera politikoaz bertsio desberdinak dabilta. Batzuren ustez, eskualde gorria dela diote, hots, gerrila bertan dagoela. Besteek ukatu egiten dute, hori dena, eskualdearen militarizazioa justifikatzeko gobernuak sorturikoa dela, eta bertara joaten direnak soldata extra jaso dezaten. Beste batzuk diotenez aldiz, han daudenak ejertzitoak bilduriko gerrilariak dira, eta askotan, ganaduzale aberatsak zaintzeko ordaintzen zaiela. Ikus dezakezunez, errealitate bati zaintzeko ordaintzen zaiela. Ikus desazkezunez, errealitate bati dagokion bertsio desberdinak, baina, edozein modutan, eskualdeko biolentzia gehitzen dutenak.

Pelaoek heriotza oso modu naturalez bizi dute. Edonor eta edonola hiltzen delarik, pelaoak hantxe egongo dira. Hildakoa, pelao txiki bat baldin bada, zintak emanez lagunduko diote kanposanturaino. Eta hildakoa, pertsona heldua baldin bada berriz, hilaren etxera joan eta gau guztia beilan pasatuz, begiak irekitzen dizkiotelarik hilari, zerraldoa inguratzen duten bitartea, kez inguratzen dute, azpitik pasatuz, hurbiltzen diren zakurrak bidaltzen dituzte, nigarrez ari direnei begira, edaten ari direnei begira daude bitartean nola hildakoa komentatuz. Ganibetadaz hil bada, haurrak ere beraien artean komentatu ondoren zorabiatu egiten dira, nagusiek zergatik ote den galdetzen ez diotelarik.

Klasean ikusi eta beraien erreakzioak ikusten ditudanean gauza hauek hunki arazi egiten dituztela, eta bere espresabidea, agresibitate hutsa dela, konturatzen naiz.

Horrelakoak dira nire klasetara egunero joaten diren pelaoak eta hauen gan ipintzen ditut heziketaz ditudan itxaropen eta desio guztiak.

Eskolak, haurraren estimulagarri izan beharko luke, hau da, haurrak edo pertsonak bere ahalmenak eta kalitateak libreki eta autonomikoki desarrolatzearen eragingarri eta irakaslea aldiz, taldeko lagun bat, lekuko bat gehiago izan behar luke.

Hori errefleja arazi nahirik ahalegindu naiz beti, nire klaseen zatiketaren ere.

Auzo-ikastetxetik nire etxera aldatu naiz. Beroa ezin jasanezkoa egiten zuen arratsaldeaz eta freskatzez besterik ez genuen arduratu behar izaten. Eta gainera lehen aipatu nizunez idazmahaiak eserita egotera behartzen gintuzten beste edozein mogimentutarako lekurik geratzen ez zelako.

Etxeko egongela zabal samarra da eta materiale guztia zoko desberdinetan banatu dut.

Pelaoek erabakitzen dute % 90 etan zer eta nola egin behar duten. Batzutan, klaseak «kaos» baten itxura har dezakete kanpoko ikusleentzat, zeren ateak burdin kalatukoak direnez, barnean gertatzen ari den guztia ikusten bait da; eta batzuk diote: A, nahi dutena egiten dute! Irakaskuntzari aplikaturiko askatasunarentzat, hori baino alabantza handiagorik!

Haurrak lurtean etzanda, haurrak zoko-bazterretan ikasi nahiaren bakardadea gorde nahirik; lehen, edozein unetan desagertzen ziren margo, joku etabar, haurrak, bata bestearekin banatzen. Beraien etxetako giroa antzeztan..., dena dela, berak nahi dutenean hurbiltzen natzaien lekuko bat besterik ez naiz ni, edo-ta, harreman natural batez hurbiltzen natzaiena.

Hasiera batetan asko kostatzen zitzairen zer egin behar zuten erabakitzea, nik esan niezaiela nahi izaten zuten, askotan aspertu egiten zirela ikusten nuen, baina, piskanaka piskanaka heuren erresortetatik ateratzen joan ohi dira eta inolako oztoporik gabe aukeratzen dute orain.

Denboraren %10.a zuzendutakoa da, eta idatz-irakurketa aurreko, motrizitate, irakurketa eta abarrekiko ariketei eskeinitako denbora da, hots, pelao bakoitzaren mailaren arabera prestaturiko ariketei eskainitako denbora. Ariketa hauek bukatu behar dituztela jakin arren, bakoitzak daraman erritmoaren arabera egin ditzakete. Begira, gelako agresiboetako baten adibidea kontatuko dizut. Orain zenbakiez aspertzen denean, (batuketak egiten ari baita) horrela esaten dit: «Ande, bihar bukatuko dut, burua nekatu zait-eta» eta biharramonean, hori izaten da egiten duen lehenengo gauza.

Materiale pedagogiko ezak oso kreatzaile bilakatu nau. San Pablon aurkitu nuen gauza bakarra Nacho-ren liburuxka izan zen. Pentsa ezazu, beste errealitateetan sobra daudenak hauexek direnean, hain zuzen, eta garesti samarrak gehienak, jeneralki.

Eskolak, hemen, erabiltzen duten irakurgai bakarra Nacho-ren liburuxka da eta hori errepikatu eta errepikatu egiten dute. Giro honetan Nacho-ren liburuxka hori astakeria pedagogiko bat da. «Nire amatxok maite nau», «Nire aitaxok pipan erretzen du» eta «Mutikoak musu bat eman dio emakumeari», eta horrelako esaldiek ez bait dute zerikusirik hemengo errealitatearekin, horrela, lengoaia idatzia zientzi fikzioan bilakatzen delarik, eta hitzak benetako balio gabeko.

«Memo-ri gutuna



Ezin nintzen horrelako deformazioaren partaide izan eta Inma-ren laguntzaz, entseiu berri bat egin nahi izan nuen. Liburuxka batek izan beharko lukeenaren lehenengo zatia egin nuen, herriaren hitzez eta herriarentzat egina. Beharrezko da mintzatzen dena irakurtzea, irakurketa ezinbestekoa gerta dadin, eguneroko bizitzan erabiltzen diren hitzek musikazko pisua izatetik aparte, ekonomiazkoa era ba dutelako. Pelaoek arrainez hitzegiten dutenean adibidez, ez dutelako «magiazko artez» jaten, zeren, aitak bakarrik ez duela lan gogorra egiten arrain hori lortzeko, heurak ere herrian zehar ibili behar izaten dutelako saldu nahi badute.

Zati honek, deselikaturiko eskualde honetako gai garrantzitsu bat jaso nahi du: «Elikagaiak edo janariak», eta esaldi bakoitzak eta hitz bakoitzak, haur hauen esaldirik arruntenen islada bat izan nahi du: «Aita, nik jateko zer-bait nahi dut», «Ama emaidazu jana», «Janaria nahi dugu denontzat», eta horrelakoak.

Ale bat bidaliko dizut baina ez da behin betirakoa, oraindik lantzeko, zuzentzeko eta osatzeke dagoelako, baina arlo honetan lanean ari garen guztion artean egin beharko genukeen entseiu bat izan beharko lukeela uste dut, horrela, hemendik urte batzutara, erantzun pedagogikoak herriarengandik eta herriarentzat gero eta gehiago izan daitezten.

Liburuxka horren osagarri bezala beste materiale bat ere atera dut. Zure eritzia eman zeniezadan nahi nuke.

Zure eskutitzaren zai, kezkatu.

Musu bat.

Tere



ETZAK IZORRA!

Bere hortzetan ekaitza lehertzen da
eta bere ezpainak dardarka
irainezko
euri etengabez.

Oihuka gorrituriko eztarriak
diosala oro mamurtuz.

Bere mihian lerratuz
ausartaren hots bortitzak
alfonbra antzo.

Bitartean bere eskuak
arkatzaren inguruan tolestaturik
eta bere begietatik iheska doalarik
indarge eta ahul sentitzen
denaren oihua:

ETZAK IZORRA, AIZAK, ETZAK IZORRA!

()

Gilbor puzturiko tximinoa
oihuz betea.
Isilerazitako eztarria
begi handietakoa.
Isiltasuna amesten duzu
mila urtetako
historia duen leizezuloa bezala
Jipoiak zure bizkargainean kolpatzen dira
inorengandik laztandua
eta etorkizunik gabeko zure urratsek
hotsik gabeko mezua bidaltzen dute.




MAISU, NI LEHENDABIZI!

Beltxarana, ezinegona,
erritmorik gabeko dantzari gogorra
denetan azkena,
azkena etxean
azkena auzoan
azkena herrian.

Denek dakite azkenean bera dagoela
klasea bukatu denean iristen da,
janaria bukatu denean iristen da,
osasuna bukatu denean iristen da,
familia bukatu denean iristen da,
maitasuna bukatu denean iristen da.

Hala ere, tristura guztien artean
irribartsu botatzen du bere esaldia;
Maisu, ni lehendabizi!!



ISILIK

Plaza Amezketza, 12 - 8.a F
DONOSTIA

HARPIDETZA

zen deiturak

Helbidea

Herria Tlf.

Adina Lanbidea

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez



Kontu Korrontearen zenbakia

Sukurtsala (Ordezkaritza)

Aleka ordaindu nahi dut. Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna

(Sinadura)



Goian azaltzen ditugun aleok, IRAKASLE ELKARTEAN aurkitzen dira, norbait interesaturik egonez gero, honoko helbide honetan eros daitezke.

IRAKASLE ELKARTEA
Amezketan 12-8°F
20.010-DONOSPIA

Eusko Card

Zeure Kutxazain berezia
egun eta gauez, edozein ordutan.



Ez al duzu izan inoiz diru-beharririk arratsalde erdian?

Edo gauerdian?

Ez al zera gertatu diru-premian jaiegun batetan?

Behin baino gehiagotan gertatu zaizu, noski, horrelakorik: eskuartean dirurik ez eta gure kutxa hertsirik.

Horrelakoetarako, gure Erakundeak irtenbide egokia eskaintzen dizu eta EUSKO CARD deritzo, Lan Kide Aurrezkiko Kutxazain berriak, alegia.

Gure Bulegoetan zure EUSKO CARD
Txartela eska ezazu.



CAJA LABORAL POPULAR

LAN KIDE AURREZKIA

Euskadiko Kutxa

